

**NAFARROAKO GOBERNU
AURRERAKOI ETA PLURAL
BATERAKO
PROGRAMA-AKORDIOA**

2023-2027

Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE, Geroa Baik eta Contigo Zurekin-ek sinatutako agiria

AGIRI OSOA, ANALISIRAKO

1. OINARRIZKO PRINTZPIOAK-ESPARRUA	3
2. 5 LEHENTASUN POLITIKO.....	5
3. NAFARROA SOZIALA ETA ONGIZATEARENA	7
OSASUNA.....	7
GIZARTE POLITIKAK	9
GAZTERIA.....	11
ETXEBIZITZA.....	12
HERRITAR MIGRATZAILEAK.....	15
KANPO-EKINTZA	16
4. BERDINTASUNA, INKLUSIOA ETA ANIZTASUNA	17
BERDINTASUNA.....	17
GENERO-INDARKERIA	17
ANIZTASUNA	18
5. EZAGUTZA, HEZKUNTZA ETA AUKERA-BERDINTASUNA.....	19
6. KULTURA ETA KIROLA.....	23
KULTURA.....	23
KIROLA	23
7. OGASUNA, BALIABIDE PUBLIKOAK ETA FISKALITATEA	25
8. LURRALDE-KOHESIOA ETA TOKI-ADMINISTRAZIOA	26
AZPIEGITURAK.....	27
LURRALDE-ANTOLAMENDUA	27
9. ENPLEGUA ETA AURRERAPEN EKONOMIKOA	28
ENPLEGUA.....	28
EKINTZAILITZA ETA ENPRESA-GARAPENA	30
ENPLEGU AUTONOMOA	31
EKONOMIA SOZIALA	31
ZIENTZIA	31
INDUSTRIA.....	32
MERKATARITZA ETA TURISMOA.....	33
10. INGURUMENA ETA TRANTSIZIO EKOLOGIKOA.....	34
KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO EKINTZA	34
EKONOMIA ZIRKULARRA	35
NATURA-INGURUNEAREN KUDEAKETA	35
11. LANDA-GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA.....	37
12. HIZKUNTZA-POLITIKA	39
13. FUNTZIO PUBLIKOA, JUSTIZIA ETA BARNEKOA	40
14. MEMORIA, BAKEA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK	41
15. NAFARROA, BERE AUTOGOBERNUA ETA LANKIDETZA INSTITUZIONALA	43

AUTOGOBERNUA	43
GARDENTASUNA, ETIKA POLITIKOA ETA GOBERNANTZA BERRIA	43
SEGURTASUN PUBLIKOA ETA LARRIALDIEN KUDEAKETA.....	44
BARNEKOA.....	44
JUSTIZIA	45
16. KOORDINAZIORAKO, GARAPENERAKO ETA JARRAIPENERAKO MEKANISMOAK	46
4.1.- JARRAIPEN-ORGANOAK.....	46
Jarraipen-batzorde orokorra.....	46
Asteroko funtzionamendu-batzordea.....	47
Batzorde sektorialak	48
4.2.- PARLAMENTUKO KOORDINAZIORAKO ARAUAK	49
Lege-proiektuak	49
Parlamentuari jakinarazi beharreko planak eta programak	50
Parlamentuko taldeen lege-proposamenak	50
Gobernuaren kontrol-ekimenak	50
Lan-saioak eta parlamentuko bisitak	51
Adierazpen instituzionalak eta mozioak	51
Izendapenak.....	52
Aurrekontuak	52
4.- 2023-2027 LEGEGINTZALDIRAKO AKORDIO HONETAKO KOORDINAZIO-MEKANISMOAK BETETZEKO BERMEAK	52
5º.- AZKEN KONPROMISOA	53
17. DESADOSTASUNAK	54
HEZKUNTZA	54
LAN-BALDINTZAK	54
RATIOAK.....	54
ETXE BIZITZA.....	55
OGASUNA, BALIABIDE PUBLIKOAK ETA FISKALITATEA.....	55
HIZKUNTZA-POLITIKA.....	55
FUNTZIO PUBLIKOA, JUSTIZIA ETA BARNEKOA.....	56
LURRALDE-KOHESIOA ETA TOKI-ADMINISTRAZIOA	56
NAFARROA, BERE AUTOGOBERNUA ETA LANKIDETZA INSTITUZIONALA.....	56
SEGURTASUN PUBLIKOA ETA LARRIALDIEN KUDEAKETA	56
JUSTIZIA.....	57

1. OINARRIZKO PRINTZIOAK-ESPARRUA:

Ezinbestekoa da proposamen funtsezko batzuk proposatzea, Foru Komunitatearen gaur egungo eta etorkizuneko eskaerei eta beharrei erantzunen dietenak:

1. Lehentasunezkoak izanen dira bata bestearekin egoki uztartutako politika ekonomiko eta sozialak, honako xede hauetara bideratuak: hazkunde jasangarria sortzea eta herritar guztiei erabateko aukera-berdintasuna eta ongizatea bermatzea; erabateko enplegua, arreta berezia emanez bereziki kalteberak diren kolektiboek, hala nola emakumeek, gazteek edo migratzaileek; oinarrizko eskubideen estaldura bermatzea, hala nola etxebizitza duina izatea edo bizitza gutxieneko duintasun-baldintzetan garatzea; osasun mentala, eta bizitza pertsonalaren eta profesionalaren uztardura bermatzea, eta, orobat, gizarte-desberdinkeriak desagerraraztearen alde irmo egitea.
2. Herritarren eskubideak eta guztion onera bideraturiko erantzunkidetasunaren kultura sendotzea, eta sistema demokratikoan sakontzea, baita kontrolerako, gardentasunerako eta partaidetzarako mekanismoetan ere.
3. Bakearen eta bizikidetzaren balioen alde egitea, hori baita proiektu politiko guztiz demokratiko guztien lehen betebeharra, eta aniztasuna aldarrikatzea gure Foru Komunitateko maila guztietan (gizartean, lurraldean, nortasunean, hizkuntzan, sexuan eta abarretan), aurrerabiderako balio bat den aldetik.
4. Halaber, apustu integrala egitea feminismoaren, genero-berdintasunaren eta aniztasun afektibo-sexualaren alde eta generoagatik, sexuagatik edo sexu-orientazioagatik pertsonak ez diskriminatzearen alde, indarkeria matxisten aurkako borroka eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideen bermea azpimarratuz, politika ororen funtsezko printzipiotzat harturik.
5. Erreferentziazko zerbitzu publikoak definitzea eta indartzea, oinarri harturik unibertsaltasunaren, kalitatearen eta ekitatearen printzipioak, eta irizpide harturik nahikotasun ekonomikoa eta baliabide publikoak albat gehien optimizatzea, kontrolerako dauzkagun gomendioetan oinarrituz eta zerga-sistema progresibo eta bidezko baten bitartez, betiere aurrekontu osoaren baliabideen eta nahikotasunaren barnean.
6. Lurralde-kohesioan eta despokatzearen kontrako borrokan sakontzen jarraitzea, baita oinarrizko azpiegiturak garatzen segitzea ere, hots, lurraldea egituratuko dutenak eta aukera-berdintasuna, garapen ekonomiko eta sozial bateratua eta ingurumen-jasangarritasuna bermatuko dutenak.

7. Digitalizazioari, adimen artifizialari eta 4.0 Industriari aurre egiteko, funtsezkoa da berrikuntzan oinarrituriko erantzuna ematea, Foru Komunitatearen alor teknologikoa bere ekoizpen-eremura egokitu dadin; hortik abiatuz eginen dugu lan, abangoardian egotea ahalbidetuko diguten IKT estandar hoberenak izan ditzan Nafarroak. Estrategia hori hezkuntzaren, gizarte-erakundeen eta, oro har, herritarren bitartez ere babestuko da.
8. 2030 Agenda eta haren Garapen Jasangarrirako Helburuak osoki eta zeharka bultzatzea, esparru politiko horrek maila goreneko erakunde guztiak interpelatzen baititu, eta erantzun egokia eta koherentea ematen baitie gizarte gisa ditugun erronka guztiei: klima-aldaketaren aurkako borrokari, mugikortasun jasangarriaren alde egiteari, jasangarritasunaren alde egiteari eta 2030 Agendaren helburuei eman beharreko erantzunari: ekonomia zirkularra, trantsizio energetikoa, klima-aldaketa eta garapen jasangarria.
9. Erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak aktiboaren alde egitea, gizarte gisa ditugun baliabide guztiak dinamizatzeko faktorea den aldetik, Foru Komunitatean guztion ongia bilatzearen; izan ere, sektore publikoak eta erakundeek lider eta dinamizatzaile nagusiak izan behar dute Nafarroaren aurrerabiderako.
10. Gure eskubide historikoak adostasunez eguneratu behar direla aldeztu dugu, eta, zehazki, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, aurrerabideko eta ongizateko gizarte bat sortzeko tresna baita, baina berrikusi beharra ere badu Nafarroako XXI. mendeko gizartearen premietara egokitzeko.
11. Berrikuntza erabat demokratikorako agendan sakontzea, kalearen errealitatea erakundeenera hurbiltzeko, gardentasunaren, komunikazioaren eta elkarrekintzaren bidez.
12. Nafarroako errealitate historiko, kultural eta soziala babestea, errealitate horren parte diren berezko hizkuntzak barne.

2. 5 LEHENTASUN POLITIKO.

1. **Osasuna.** Osasunari buruzko Foru Legea onestea, oinarritzat harturik, besteak beste, “Osasunari buruzko Foru Lege berri baten oinarriak erabaki eta finkatzeko lkerketa-batzordeak edo Osasun-batzorde Bereziak” 2023ko martxoan onetsitako txostenekoak:

- Osasun-sistema publiko unibertsalaren defentsa, eta, orobat, ekitatea, lurralde-elkartasuna eta gizarte-elkartasuna, eta prestazioak eskuratzeko benetako berdintasuna
- Itxaron-zerrendak
- Zerbitzuen zentzuzko erabilera
- Arreta integrala eta soziosanitarioa
- Oinarrizko osasun-laguntza eraberritzea eta indartzea
- Ospitaleen antolakuntza pertsonarengan ardaturik egotea.
- Emaitzetan oinarritutako ebaluazioa.
- Osasun mentalean dauden erronkak, batez ere haur eta gazteen arloan
- lkerketa eta medikuntza pertsonalizatua bultzatzea

2. Etxebizitza

- Nafarroako 2018-2028 aldirako Etxebizitza Plana garatu eta ezartzea, aurrerantzean ere birgaitzeari eta alokairu sozialari emanaz lehentasunik handiena.
- Etxebizitza bizigarri eta eskuragarrien parke bat sustatzea, landa-eremuak kontuan hartuta.
- Neurrizko alokairu-prezioak bermatzea.

3. **Berrindustrializazio-plana.** Gure industria-sarea lehiakorrago bihurtzea, aitzina joanez balio erantsia duen eta kalitatezko lana sortzen duen ekoizpen jasangarri baterantz, gure erkidegoan errotutako prestakuntza-eskaintzarekin koordinaturik.

4. Nafarroako ekonomiaren eta gizartearen garapenerako eta kohesiorako funtsezkoak diren **azpiegiturak** bultzatzen eta garatzen **jarraitzea**

5. **Bizikidetzarako Plan Estrategikoa garatzea**, honako hauetan sakonduz: indarkeriari zilegitasuna kentzeko programak, elkarrizketa sustatzea arazo politiko eta sozialak konpontzeko bide gisa, iraganeko eta oraingo zeinahi jarduera eta/edo jarrera bortitz ez-legitimo gaitzesteko gizarte-adostasuna sustatzea, eta aniztasunarekiko errespetua bultzatzea iritzi eta ideologia ezberdinen artean, bai eta identitate, sexu-aukera eta genero-aukera, ikuspegi laiko eta erlijioso, kultura eta jatorri, eta hizkuntza ezberdinen artean ere.

6. Gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna bermatzea, Istanbulgo Hitzarmenean xedatutakoaren arabera. Hitzarmen hori Espainiak berretsi zuen, eta 2014ko abuztuaren 1etik dago indarrean. Haren arabera, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, baita diskriminazio-modu bat ere, eta estatuak horren erantzuletzat hartzen dira, behar bezala erantzuten ez badute. Gainera, beren legeria hitzarmenaren betebeharrak egokitzea behartzen ditu sinatzaileak, eta hitzarmena egiaz aplikatzen dela ziurtatzeko mekanismoak ezartzera. Ildo beretik, benetako berdintasunaren bermea arlo horretan indarrean dagoen foru-legerian dago babestuta (17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa; eta 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa).

3. NAFARROA SOZIALA ETA ONGIZATEARENA

OSASUNA

1. Osasunaren arloan, honako hauek bermatuko dira: laguntzaren unibertsalizazioa, laguntza jasotzeko ekitatea, osasun-laguntza integratua eta osasun-arloko desberdinkeriak urritzea, oinarrizko osasun-laguntza bultzatuz eta osasun-baliabideak eraginkortasun klinikoaz erabil daitezzen sustatuz, zerbitzu publikoak optimizatuz eta baliabide itunduak eraginkortasunez eta modu koiuntural batean erabiltzen direla bermatuz itxaron-denborak murriztearren. Konpromiso politiko hori hiruko gobernuarendako lehentasunekoa dela aitorturik, aurrekontu-nahikotasuna eta gastuaren kontrola bermatuko dira.
2. OSASUNARI BURUZKO FORU Legearen proiektua aurkeztea 2024ko abendua baino lehen, Nafarroako Parlamentuko "Osasun-batzorde Bereziak" onetsitako txosteneko oinarriei jarraikiz, besteak beste:
 - Osasun-sistema publiko unibertsalaren defentsa, eta, orobat, ekitatea, lurralde-elkartasun eta gizarte-elkartasuna, eta prestazioak eskuratzeko benetako berdintasuna.
 - Osasun-sistema publikoa indartzea, Nafarroako herritarrak sistemaren erdigunean jartzeko, indarrean dauden osasun-itunak berrikusiz eta haiek kontrolatzeko mekanismoak gauzatuz.
 - Zerbitzuen zentzuzko erabilera.
 - Arreta integrala eta soziosanitarioa.
 - Osasungintzaren antolakuntza pertsonarengan ardazturik egotea.
 - Emaizetan oinarritutako ebaluazioa.
3. Arreta berezia jarriko da honako hauetan:
 - OINARRIZKO OSASUN-LAGUNTZA
 - Oinarrizko osasun-laguntzako Estrategia ezartzea, argi eta garbi aldeztuz oinarrizko osasun-laguntza izan dadin osasun-sistemaren ardatza, eta kronograma xehe bati jarraitzea horretarako.
 - Oinarrizko osasun-laguntzako baliabideak handitzen jarraitzea, OMEk ezarritako estandarretara hurbilduz.
 - OSASUN MENTALEKO PLANA BERRIKUSTEA
 - Osasun Mentaleko Plan berri bat onestea, arreta hurbilagoa bermatuko duena, batez ere haur eta gazteen alorrean.

- Aitzina joatea NOUko Psikiatria Zerbitzuko ospitaleratze-azpiegituren berrikuntzan.
- ITXARON-ZERRENDEI HELTZEKO ESTRATEGIA
 - Itxaron-zerrendak murrizteak lehentasunezko helburu izan behar du osasun-zerbitzu publikoetan.
 - Legegintzaldiaren hasieratik, epe labur, ertain eta luzerako neurriak bilduko dituen estrategia integral bat ezarriko da.
- 4. Osasun-garraioko enpresa publikoa inplementatzea, larrialdietako garraioari eta garraio programatuari zerbitzua emanez eta langileen lan-baldintzak hobetuz, besteak beste. Nafarroan irizpide geografikoa ezabatuz jaioberrien, haurren eta helduen ospitale arteko lekualdatzeetan, ekitatea bermatuz irizpide klinikoaren bitartez.
- 5. Beharrezko osasun-azpiegiturak bultzatzea eta garatzea, arreta berezia jarritz lehentasunezkoetan, hala nola Pediatriako ZIUan, Atarrabiako, Erripagainako, Garesko eta Lizarrako osasun-etxeetan, eta Gayarreko edo Tuterako Mendebaldeko osasun-etxeen berrikuntzan, baita Departamentuak legegintzaldian zehar egoki irizitako guztietan.
- 6. Arreta biopsikosozialeko eredu bat bultzatzea, norbanakoen eta komunitatearen premietan ardaztua, eta osasunaren zaintzan erantzunkidetasuna sustatuko duena.
- 7. Aho-hortzetako osasun-zerbitzuen zorroa handitzea, arreta berezia emanez bai haurrei eta bai kolektibo kalteberei.

GIZARTE POLITIKAK

1. Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea berrikustea eta eguneratzea, errealitate eta erronka sozial berrietara egokitzearen.
2. Gizarte-zerbitzuen zorroa berrikus dadin bultzatzea prestazioak eta zerbitzuak gizarte-premia berrietara egokitzearen.
3. Oinarrizko osasun-laguntza eta gizarte zerbitzu komunitarioak indartzearen alde egitea.
4. Gizarte Errealitatearen Behatoki Publikoa sendotzea, bere azterlanak garatu eta bultza ditzan, eta bere datuen publikazioa sustatu dezan, erabakiak errazago hartu ahal izateko.
5. Etxeko laguntza-zerbitzuaren kudeaketa publikoari eustea, eta arreta goiz, arratsalde, asteburu eta jaiegunetara zabaltzea.
6. Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena.
7. Udal kudeaketako eguneko zentro publikoen plana bultzatzen jarraitzea Nafarroa osoan.
8. Errenta Bermatuaren eredia finkatzea, gizarte-babeserako eta pobreziaren aurka borrokatzeko funtsezko tresna gisa, eta beharrezkoak diren lege-aldaketak ezartzea, halakorik behar bada, diru-sarrerak bermatzeko Nafarroan dagoen sistema koherentea izan dadin.
9. Gizarte-inklusiorako eskubidean aitzina joatea:
 - enplegurako pizgarriak garatuz eta pobrezia-egoeran dauden langileak babestuz.
 - lan-merkatuan sartzeko baldintzetan dauden pertsonen enplegurako eskubidea bermatuz.
 - arrisku-egoeran eta/edo gizarte-bazterketako egoeran daudenendako gizarte-laguntza bermatzen dieten baliabideak garatuz.
 - Trebakuntza pertsonal, sozial eta okupazionalako baliabideak hobetuz, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen egiaz aurrera egin dezaten gizarteratze-ibilbideetan.
10. Enplegu-politika aktiboak sendotzea, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen enplegagarritasuna handitzeko funtsezko tresna gisa, eta orobat sendotzea orientazioko eta bitartekaritzako eredu berria, askoz ere pertsonalatuagoa baita.
11. Hirugarren Sektoreari buruzko Lege berria, milaka lagunen egoera hobetzen lagun dezan Nafarroan, arras feminizatuta eta prekarizatuta dagoen sektore batean.
12. Ikuskapen gehiago, eta pribatizatutako zerbitzu guztien kontrola indartzea.
13. Haurrendako plan berri bat garatzea, prebentzio-programetan eta harreraren sustapenean ardaztua. Babes-sistema indartzeko behar diren neurriak hartuz, integrazioa eta helduarorako trantsizioa ardatz hartuta.

14. Adin txikikoak: Baliabideak hobetzen segitzea, balorazioa arintzeko eta esku-hartzea areagotzeko haur eta nerabeak arriskuan edo babesgabe daudenean.
15. Diagnostiko bat egitea mendekotasuna eskualdeka artatzeko dauden zerbitzuei buruz eta etorkizunean –epe ertain zein luzean– egonen diren premiei buruz, horren ondotik Foru Lege bat onets dadin Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasuna Artatzeari buruz, zeinak arautuko baitu zer-nola arindu mendekotasuna baloratzeko eta zerbitzuak emateko erantzunaren izapideak.
16. Asoziazionismoa sustatzen jarraitzea, landa-eremuan batik bat, eta Adinekoen Kontseilua bultzatzea, parte hartzeko espazioa izan dadin. Adinekoendako, batez ere bakarrik zahartzen direnendako, gizarte-desberdinkeria arazo bat izanen ez den gizarte baten alde lan eginez, adinekoen eskubideak eta autonomia bermatuz.
17. Nafarroako zahartze aktibo eta osasuntsuaren estrategia berria onestea.

GAZTERIA

1. Gazteen ikuspegia politika guztietan txertatzea, eta eragiten dieten politika publikoak diseinatzen parte har dezaten sustatzea.
2. Enplegua eskubide bihurtzea prestakuntza-etaparen bukaeran.
3. Gazteen enpleguaren prekarietatea eta kalitaterik eza eragozte. Horretarako, gazteriari bideratutako ikuspegia lehenesten jarraituko dugu Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan.
4. Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez gazteen arloko politikak garatzeko behar besteko finantzaketa baten alde egitea.
5. Gazteen arloko politikak egonkortzeko konpromisoa, unean uneko egoera ekonomikoak gorabehera.
6. Gazteriari buruzko Foru Lege berri bat bultzatzea.
7. Next Retorna estrategia ezartzen jarraitzea.
8. Garraio-txartel bakarra.
9. Inbertsioa handitzea "Ikusi, parte hartu eta Kontatu" programan.
10. Gazteendako Informazio Zerbitzua zabaltzen jarraitzea.
11. Sare sozialen erabilera egokiari buruzko lan-ildoak eta AAren ahalmenak eta erronkak bultzatzea.
12. Gorrotoaren diskurtsoen eta Fake Newsen inguruko lan-ildoak bultzatzea.
13. IKTen lan-ildoak eta gazteen parte-hartze politikoa bultzatzea.
14. Azterlan teorikoak egin eta argitaratzea, gazteen arloko politikek izan beharreko ikuspegia lantzeko.
15. Gazteen ekintzailtza sustatzea, ekonomia sozialari arreta berezia emanez.
16. Ongizate emozionaleko aholkularitza-zerbitzua sendotzea eta indartzea, haur eta gazteen osasun mentala bultzatuz batez ere.

ETXEBIZITZA

1. Etxebizitzan egindako inbertsio publikoa handitzea, Europako batez bestekoarekin parekatu arte.
2. Etxebizitza babestuen modulu haztatuak berrikustea, salerosketan zein alokairuan, prezioak graduatzeko aintzat hartuz zer desberdintasun dauden merkatuan Nafarroako eskualdeen artean, eta bereziki laguntzeko biztanlerik gabe gelditzeko arriskua duten eskualdeak.
3. Aurrekontua handitzea, berariazko funts bat gaitu eta alokairuko etxebizitzaren sustapenak erosteko, bai kalifikazio hori dutenenak, bai kalifikazio-aldia bukatua dutenenak, etxebizitza-sistema publikorako berreskuratuz bizitoki horiek.
4. Berariazko programa areagotzea, tokiko erakundeekin lankidetzan, hutsik dauden etxebizitzak edo erabiltzen ez diren eraikinak alokatzeko eskaintza mugiarazteko, lehentasuna emanaz landa-eremuetako jarduketei edo etxebizitza sozial edo eskuragarriaren eskari egiaztatua duten eremuetako jarduketei. Etxebizitza Sozialaren Foru Funttsaren zeregina indartuz eta berrikusiz.
5. Emanzipa programa ebaluatzea eta, hala behar bada, zabaltzea.
6. Lurzoru publikoaren lagapena areagotzea alokairuko edo azalera-eskubideko formulen bidezko etxebizitza sozial eta eskuragarrien parkea handitzeko, eta SAREBen ondarea etxebizitza publikoen parkean integratzea.
7. Atzemandako etxebizitza hutsak erabiltzeko urratsak arintzea eta areagotzea, jabeei pizgarria emanaz alokairu-poltsari laga diezaieten, edo, pertsona juridikoen kasuan, foru-legerian jasotako figurak aplikatuz.
8. Alokairuko Etxebizitza Publikoen Foru Programa berri bat finantzatu eta gauzatzea, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena eta eraikuntza nabarmen areagotzeaz gain.
9. Etxebizitza babestua sustatzea, bai bizitegi-eremu berrietako erreserbetan, bai lehendik dauden eraikinetan. Bi kasuetan, lehentasuna emanen zaio hiri-bilbean integratzeari eta etxebizitza librearekin nahasteari, garapen zein sustapen berberetan.
10. Ikuskapen-programa bat eta zehapen-prozedura batzuk garatzea, etxebizitzaren funtzio soziala bermatzearren.
11. Bizigarritasunari buruzko 142/2004 Foru Dekretua aldatzea, babestutako birgaitze-baldintzak hiriguneetako edo landa-inguruneetako etxebizitzaren tipologiara egokitzeko, bai eta eraikin tradizionaletara ere, erabiltzen ez diren beheko solairu komertzialen eta eraikin industrialen eraldaketa edo gehiegizko azalera dituzten etxebizitzaren banantzea sustatuz, hiri-bilbearen barnean etxebizitza babestua areagotu dadin sustatzeko, lurzoru gehiago hartu beharrik gabe.
12. Berrikuspen fiskala, etxebizitza sozialen eta eskuragarrien parkea etengabe handitzeko eta espekulazioa saihesteko.

13. Etxebizitza-eskaintza plural bat sustatzea, askotariko ereduak dituen, premia desberdinetara eta eskarira egokiturik.
14. Etxebizitza kolaboratiboen programa berritzaile bat, etxebizitza sozialez eta eskuragarritz hornitzera bideratua, espekulaziorik eza eta eskuragarritasun iraunkorra bermatuta.
15. Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoak birdiseinatzea eta/edo berrantolatzea, lurralde-deszentralizazioaren irizpideari jarraikiz, herritarrei etxebizitza-eskubideari lotutako zerbitzu integral bat eskain diezaieten, alokairuen erregistroaren zerbitzua barne, eta maizterren fidantzak biltzeko gaitasun eta guzti.
16. 10/2010 Foru Legearen babesean, Etxebizitza Hutsen Erregistroa al bait lasterren hedatzea lurralde osora. Erregistro horrek aukera eman beharko du:
17. Erabilera turistikoko apartamentuak eta logelak ikuskatzeko mekanismoen hobekuntza sustatzeko.
18. Estatuko Etxebizitzaren Legea aplikatuz, izapideak hastea berehala ezartzeko zein diren eremu tenkatuak eta alokairuaren prezioa mugatzeko.
19. Landa-berrikuntzako programa bat, baliabide publiko nahikoaz hornitua, etxebizitza sozial eta eskuragarrien parkea modu iraunkorrean handitzen lagunduko duten proiektu pilotuak diseinatu eta garatzeko.
20. Etxebizitza babestuaren eskatzaileen eroldaren irisgarritasuna eta estaldura hobetzea, baita etxebizitzarako laguntza zuzenen baliabideena ere.
21. Langile-familiei hipotekaren ordainketa errazteko neurriak aztertzea, interes-tasa altuen egungo egoerak irauten duen bitartean.
22. Bitartekaritzako eta laguntzako zerbitzu bat indartzea etxebizitza galtzearen aurrean, bizitegi-larrialdira bideratua, 20/2022 Foru Legearen eraginkortasuna bermatuko duena, eta, orobat, egoera horretan dauden pertsonen erregistro eta mapaketa eguneratu bat.
23. Lagun egiteko programak ebaluatzea eta, hala behar bada, haiek aldatzea eta/edo zabaltzea.
24. Nafarroako Etxebizitzaren Aholku Kontseiluan lan-plan bat sustatzea, bermatzeko kontseilua suspertzen dela eta gizarte-eragileen, erakundeen eta gizarte zibilaren parte-hartzea eraginkorra dela.
25. Indarrean dagoen Etxebizitza Planaren ebaluaziotik abiatuta, 2028-2038 aldirako Etxebizitza Estrategia egitea lanerako plan bat abiaraziz, diagnostikoari eta funtsezko agente zein eragileen eztabaida eta partaidetzari helduko diena eta emaitza-helburuak ezarriko dituen egutegi baten arabera eta adierazle kuantitatiboak definituz.
26. Etxebizitzaren arloa baliabide ekonomiko eta giza baliabide gehiagoz hornitzea, 20/2022 Foru Legea osorik inplementatzeko eta Estatuko Etxebizitzaren Lege berriaren transposizioa egiteko.
27. Navarra Social Housing Plana garatzen jarraitzea eta areagotzea, foru-funtsen ekarpena eginez sustapen publikorako, fase desberdinetan gauza dadin eta Foru Komunitate osoan zehar, alokairuko etxebizitzaren parke publikoa nabarmen handitze aldera.

28. Finantza-tresna berriak ezartzea, auzo-erkidegoek bizitegi-eraikinak birgaitzeko eta hiri-ehuna berroneratzeko sustatzen dituzten proiektuen finantzaketa bermatzeko eta errazteko.
29. Birgaitzeko laguntzen baremoak berrikustea, hartara, lehentasuna emateko eremu edo auzo jakin batzuek dituzten kalteberatasun sozialei eta eraikuntzei lotutakoei eta, orobat, hiri-ingurune degradatuei, Etxebizitzako Departamentuak egin berri duen bisorearekin bat eta tokiko erakundeekin lankidetzara estuan.
30. 2024ko urtarrilaren 1etik aitzina, birgaitzeko laguntzei buruzko Foru Dekretuan egin beharreko aldaketak sustatzea edo plan osagarri bat izapidetzea, eten ez dadin gure herri, auzo eta hiriak berroneratzeko premia larriari eman beharreko erantzuna, Next Generation funtsak bukatu arren, aurreikustekoa baita hala gertatuko dela.
31. Berokuntza komunitarioko instalazioak eta auzoko sareak babesteko esparru bat ezartzea, energia berriztaezinen kontsumoa murriztuko duena, eta azpimarratzea eraginkortasun energetikoko neurriak hartu behar direla, baita energia berriztagarriak sartu ere.
32. Mekanismoak ezartzea Foru Komunitateak, mankomunitateek edo toki-erakundeek energia-aprobetxamenduetan parte har dezaten energia berriztagarriak sortzeko parkeak ezartzen direnean.
33. Etxebizitzaren arloko berrikuntza sozialeko programa, diagnostikoan eta etxebizitza-premian oinarritua, hirugarren sektoreko erakundeen lankidetzaren bidez, eta lankidetzara publikoko zenbait proiektu pilotu garatuz eragile horiekin.
34. Etxebizitzak birgaitzen laguntzea, energia-eraginkortasuna sustatzeko.
35. Pizgarriak, laguntzak eta kredituak aztertzea, birgaitzeak teknologia eraginkorragoen bitartez egin daitezkeen bultzatzeko eta irisgarritasun unibertsala sustatzeko.
36. Etxebizitza hutsen, lur abandonatuen eta herri-lurren erregistro bat egitea.
37. BAirekin (Building & Architecture Institute) lankidetzara-ildoak finkatzen segitzea, arreta berezia emanez etxebizitza sozial eta eskuragarriaren parkea birgaitzeari eta zabaltzeari.
38. Bizitegi-eraikinetako amiantoa kentzeko laguntza-ildo berriazko bat txertatzea birgaitze babesteko Biziberri planaren esparruan. Laguntza-ildo hori amiantoaren eta haren ondorioen aurka borrokatzeko departamentuarterko jarduketara-plan baten parte izan behar da.
39. Eraikuntza-sektorea eraldatzea ahalbidetuko duten jarduketak babesten jarraitzea, industrializazioaren eta karbono-aztarna murriztearen alde eginez, bai eraikuntzan eta bai eraikinen bizitza baliagarrian.
40. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen 28/2018 Foru Legea aldatzea, etxebizitza babestu bat desegokia dela zehazteko irizpideak zabaltzeko eta erantzun egokiagoa emateko familia ugariari edo adinekoak dituzten unitateei.

HERRITAR MIGRATZAILEAK

1. Herritar migratzaileen premiekin bat datozen politika publikoak bermatzea.
2. Bereziki kalteberak diren atzerritarren kolektiboak babesteko politika sustatzen jarraitzea.
3. Migratzaileen Harrera Plana eta Kulturarteko Elkarbizitzarako Estrategia sustatzen jarraitzea, Nafarroako Gobernuak azken legegintzaldian onetsitakoak biak ere.
4. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Foru Legea erregelamendu bidez garatzea.
5. Immigranteei harrera egiteko eta nazioarteko aterpea emateko baliabideak hobetzea baliabide publikoekin.
6. Integraziorako eta bizikidetzarako baliabideak hobetzea.
7. Finantzaketaren % 0,7 lankidetzaren arloan, Lankidetzarako Plan Zuzentzailean onartutakoaren ildotik.

KANPO EKINTZA

1. Foru Komunitateak Europako Lehendakaritzatik eratorritako bultzada aprobetxatzea 2023an: "Eskualdeen eta Automobilgintza Industriaren arteko Aliantza" maila politiko goreneko foro bat da, automobilgintza sektorearen garrantzia aldarrikatzen duena CoRAI automobilgintzaren taldeartean esparruan. Erkidegorako erakusleihak hoberena izanen da, eta Nafarroako automobil-sektorerako ere bai.
2. Kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzko Legea eta Next estrategia garatzea talentuaren itzuleraren eta atxikipenaren ardatzean.
3. Nafarroaren Bruselako Ordezkaritza eta Europako Proiektuen Bulegoa sendotzea, funts horiek Nafarroari ematen dizkieten aukerak aprobetxatuz.

4. BERDINTASUNA, INKLUSIOA ETA ANIZTASUNA

BERDINTASUNA

1. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea aldatuko da, Nafarroako Berdintasunerako Institutua lehendakaritza baten esparruan kokatzeko al bait lasterren eta, nolahi ere, legegintzaldiko lehen bilkura-aldian.
2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa, –Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legetik eratorria– garatzen segitzea, baita 14/2015 eta 8/2017 Foru Legeak ere, haiek bideratuko baitute nolako esku-hartzea izanen duten datozen urteetan Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek berdintasunaren arloan, xede ezberdinen eta zeharkako ekintza berariazkoen bitartez bideratu ere.
3. Nafarroako Gobernuako departamentuen egituraren barnean berdintasun-unitateak finkatzen jarraitzea, politika publiko guztietan zeharkakotasuna aplikatzeko funtsezko tresna izan daitezen: Gizarte-zerbitzuak, segurtasuna, etxebizitza, hirigintza, hezkuntza...
4. Toki-administrazioari dagokionez, berdintasun-politikak Nafarroako lurralde osoan garatzen direla bermatuko da, eta, horretarako, aurrerantzean ere bultzatuko da erakunde autonomoetan berdintasun-teknikariaren figura ezartzea eta sendotzea, Nafarroako landa-eremuaren ezaugarriak eta aniztasuna kontuan hartuta, berezko arau-esparru bat ezarriz.
5. Emakumeen laneratzea hobetzera bideratutako enplegu-politika aktiboak sustatzea, arreta berezia emanez toki-eremuko emakumeei.
6. 12/2018 Foru Legea betetzea, eta emakumeen eta nesken desgaitasunaren ikuspegia txertatzea berdintasunari buruzko politika eta programa guztietan.

GENERO INDARKERIA

1. Indarkeria matxistaren edozein adierazpenen biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei arreta osoa ematen jarraitzea, eragindako kaltea sendatzen eta erreparatzen dela bermatzeko.
2. Koordinazio-esparru bat ezartzea Nafarroako jarduera-protokoloaren eta genero-indarkeriaren arloko tokiko jarduera-protokoloen artean. (Toki erakundeetara zabal dadin sustatzea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinaturik)
3. Prebentzio-estrategiak eta emakume nerabe biktimak artatzeko programak bultzatzen jarraitzea, arreta berezia emanez indarkeria matxistaren biktima diren adingabeei.
4. Sexu-indarkerien Arreta Osorako Zentroa abiaraztea, eta garatzeko behar beste baliabide materialez eta ekonomikoz, eta giza baliabideez hornitzea.

5. 14/2015 Foru Legearen aplikazioa hobetzen jarraitzea, etengabeko ebaluazioak eginez, arlo hobegarriak hautemateko eta/edo legea biktimek nahiz gizarteak hauteman dituzten behar berrietara egokitu ahal izateko (adibidez, ziberindarkeriak...), esparru eraginkor bat ezarriz foru lege horren aplikazioaren segimendurako eta ebaluaziorako.
6. Erasotzaileendako hezkuntza-programa berariazkoak ezartzea, arreta berezia emanez adingabeei.

ANIZTASUNA

1. Genero-zeharkakotasuna enplegu-politika aktibo guztietan aplikatzea, Enplegu Planak jasotzen duen bezala.
2. Aniztasuna gizarte-aktibo bat dela aldarrikatzea eta orobat aldarrikatzea Nafarroako garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari egiten dizkion ekarpenak.
3. LGTBI+ zuzendariordeztza sendotzea Nafarroako berdintasunerako institutuaren barnean. Giza baliabide gehiagoz hornitzea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legearen aginduak betetzen jarrai dezan.
4. Sexu- eta genero-aniztasuneko politika publikoen zeharkakotasuna hobetzea toki-entitateekin, Nafarroako berdintasunerako institutuaren eta udalen arteko lankidetzaprogramak sortuz eta bultzatuz.
5. Nafarroako Gobernuaren Kattalingune LGTBI+ pertsonen arreta osoa emateko zerbitzua sendotzea, behar adina aurrekontu-baliabidez eta giza baliabidez hornituz.
6. Aitzina joatea pertsonen salerosketaren aurka borrokatzeko planak ekonomikoki hobetzen.

5. EZAGUTZA, HEZKUNTZA ETA AUKERA-BERDINTASUNA

1. Hezkuntzaren kalitatearen aldeko Itun Sozial eta Politikoa garatzen jarraitzea, itunaren alde politikoa osatuz, hezkuntza-sisteman ekitatearen alde eginez, eta jatorrizko desabantaila handienak pairatzen dituztenen aukerak handituz bereziki. Hezkuntza publikoa sistemaren erdigunean jarriz. Ikasleek, hezkuntza-etapa bukatzerako, gaitasun kritikoa eta gizarte-errealitatea aztertzeke beren irizpidea izan dezaten sustatuz.
2. Hezkuntzako gastu publikoa pixkanaka handitzea, BPGren % 5era hurbil dadin, nazioarteko erakundeek ezarri bezala, eta antzeko hobekuntza bermatzea ikasle bakoitzeko gastuan. Finantza-ketaren hazkunde horrekin batera, hobekuntza nabarmenak egin behar dira gastuaren eraginkortasunean eta osieran.
3. Zientzia bat emakumeendako kristalezko sabairik gabea: bokazio zientifiko eta teknologikoen plan estrategikoa.
4. Hezkuntzara eta beketara bideratutako baliabide publikoak mailaz maila handitzea.
5. Unitate itundurik ez gehitzea eta unitate itunduak murriztea eskari nahikorik ez dagoenean.
6. Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapan itunak murriztu daitezke aztertzea eta sustatzea, haien indarraldia bete ahala.
7. PROA Plana indartzen jarraitzearen alde egiten dugu.
8. Hezkuntza-azpiegituren plan estrategiko berri bat bultzatzea ikastetxeetako espazioak berritzeko, kontuan hartuta eskola-patio berrien diseinuak eredu inklusibo eta parekide batera jo behar duela.
9. Zuzendaritza-postuak indartzeko neurri egokiak bultzatuko ditugu ikastetxeetan.
10. Enplegu publikoaren eskaintzetan albat lanpostu gehien eskaintzea, behin-behinekotasuna murrizte aldera.
11. Berrikustea eta, hala behar bada, indargabetzea maiatzaren 17ko 15/2022 Foru Legea, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijio-irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena, helburua izanik matrikulari, curriculumari eta hezkuntza-plangintzari egokitzea kontratazioa, gainerako espezialitateetan bezala.
12. Hezkuntza laikoaren alde egitea, Erlijioa irakasgaia eskolatik ateraz.
13. Itunak eguneratzea publikoekin eta itunpekoekin
14. Zerbitzu osagarrien estaldura mailaz maila handitzea, familien bizitza ikastetxeetan bertan errazteko (goiztiarrendako gelak, eskolaz kanpoko jarduerak, jangela).

15. Jantokien araudia aldatzea, eskola-jantokia hezkuntza-prozesuaren beste atal baten gisara txertatzeko, eta, hortaz, familia-kontziliazioa ordutegietan ere errazteko (jantokia edozein lanaldi motatan: jarraitua eta/edo zatitua).
16. Jantokia ikasturteak dituen 175 eskola-egunetan kudeatzea, dirulaguntza emanaz garraioa behar duten edo behar ekonomikoan dauden guztiei, eguneko gehieneko prezio bat ezarriz jankide bakoitzeko, eta Hezkuntza Departamentuak bere gain hartuz gainerakoa.
17. Aitzina joatea despopulatzeko arrisku izugarria duten herrietako ikasleei jantokizerbitzua finantzatzeko, Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin azterlanean ezarritakoaren arabera.
18. Landa-eskolak dituen premia berariazkoak erantzutea, landa-eskolari laguntzeko berariazko Lurralde-lankidetzako Planaren bitartez. Plan horretan, antolamendu-sistemei eta bitartekoei buruzko konpentsazio-neurriak jasoko dira: eskolen digitalizazioa, baliabide teknologikoak, zerbitzu osagarrietara iristea, landa-eskolako irakasleen berariazko prestakuntza, gertu dauden landa-eskolen arteko sare-lana, eta abar.
19. Landa-eskola balioestea, emaitza akademiko onak eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntza-tasa onak lortzen dituen erakundea den aldetik. Landa-inguruneetako unibertsitate-praktikak erraztea, baita landa-eskolak irakasleen prestakuntzan parte har dezan eta landa-eskolako irakasleek gradu anitzeko inguruneetako hezkuntza-metodologiei buruzko prestakuntza ematea ere, hiri-inguruneetan jarraitu beharreko eredu gisa.
20. Landa Eskolaren funtzionamendurako arau bat garatzea.
21. Haur Hezkuntzako Lehen Zikloaren unibertsalizaziorantz aitzina joatea, doako plaza publikoak sortuz, batik bat ikaslerik kalteberenendako. Lehentasuna emanen zaie landa-eremuei eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden eremuei. Baita gainerako lau errenta-tarteetarako doakoa izan dadin lortuz ere. Toki-erakundeen onarpena arautzea gainerako etapetako onarpenari buruzko araudiarekin, LOMLOEren onarpen-irizpideei jarraikiz. Haur-eskolak EDUCA Kudeaketa Programan sartzea. Kontuan hartuz, halaber, aitzina joan behar dela ratioak murrizten, betiere aintzat harturik, hizkuntza-eskaintza guztietan, azpiegiturak, itxaron-zerrendak eta zein diren ratioak murrizteari buruzko irizpide orokorrak hezkuntza-kalitatea eta ekitatea hobetzeko.
22. Aniztasunari Erantzuteko bigarren Plan Estrategikoa ebaluatzea eta bultzatzea, Hezkuntza Inklusioari buruzko Foru Agindu berria garatzeko.
23. Hezkuntza bereziko ikasleendako / hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleendako bekak eta laguntzak handitzea, eskumen hori transferitzea lortzen ez den artean.
24. Lan-merkatuaren beharrak kontuan hartuko dituen prestakuntza-eskaintza bermatzea, enpresekin lankidetzan. Lanbide Heziketako programa berariazkoen sorrera bultzatuz, hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko. Bestetik, genero-arrakalaren eta sektore industrial, teknologiko eta digitalekin lotutako estereotipoen aurkako planak ere egiten ditugu, lanbide-arlo horietan emakumeen matrikula handitzeko.

25. Lanbide Heziketako II. Plan Estrategikoa berrikusi eta bultzatzea, Lanbide Heziketa garatzeko neurriak bultzatuz eta aintzat hartuz eskualde jakin batzuen berezitasunak, hala nola Tuterako eta Erribera, baita Estellerria ere.
26. Hezkidetzaren alde egiten jarraitzea ikasmaita guztietan, emakumeen eta gizonen arteko gizarte berdintzaleago baterantz aitzina joateko, eta Skolae hezkuntza-programa sendotzen eta orokortzen jarraitzea. Nafarroako hezkuntza-sistema osoan berdintasunean oinarritutako hezkuntza ezartzen jarraitzea, hezkuntza afektibo-sexualari buruzko edukiak, berdintasunerako edukiak eta indarkeriarik ezari buruzkoak ikastetxe guztietan lantzen direla bermatuz, aginduzkoak baitira ikastetxe guztiendako.
27. Bizikidetzako Laguntza programan sakontzea.
28. Ikasle etorkinak hartzeko planetan aitzina joaten segitzea.
29. Eskola esparruan euskararen erabilera sustatzea. Ikastetxeetako A, B eta D eredu-erakundeetako ikasleendako hezkuntza-programak antolatuz, bai Haur eta Lehen Hezkuntzakoak eta bai Bigarren Hezkuntzakoak eta Batxilergokoak.
30. A eta D eredu-erakundeetan eskari osoa betetzeko konpromisoa, 15/2015 Legearen arabera.
31. Bigarren Hezkuntzan D eredu-erakundearen bermatzea Lehen Hezkuntzan dagoeneko eredu hori duten herrietan, baldin eta beren udalerrian instituturik badaukate.
32. Hizkuntza Eskola Ofizialen eginkizuna indartzea, askotariko ikastaroak eta ordutegiak eskainiz.
33. Foru Komunitatea eta, bereziki, herritarrak lehiakorrigo izaten ahalbidetuko gaituzten Atzerriko hizkuntzen ezagutzan aitzina joatea.
34. Derrigorrezko hezkuntza bukatzerako, Nafarroako gazte guztiek hizkuntza-gaitasun nahikoa izan dezaten ahalbidetzea, ahoz eta idatziz ulertzeko Europar Batasuneko hizkuntza nagusietako bat (batez ere ingelesa, baina baita frantsesa eta/edo alemana ere), eta hizkuntza horren ezagutza teknikoa indartzea erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntzan.
35. Aurrerantzean ere Tuterako campusa garatzearen alde egitea argiro eta irmo, Nafarroako gizarte osoaren lurralde-kohesiorako eta aurrerapenerako proiektuaren parte baita.
36. Unibertsitate-prestakuntzarako sarbide unibertsala errazten duen laguntza-sistema babestea eta areagotzea. Eta hiru proposamen zehatzen bidez gauzatuko da: Ekitate-bekak handituz eta hobetuz. Bestalde, atalase sozioekonomikoak berrituz eta, azkenik, irakasleen alde aurreko prestakuntza eskatzen duten hezkuntza emozionaleko programak gauzatuz, eskumena transferitzen ez den artean.
37. Nafarroako Zientziaren garapen unibertsitarioa bultzatzea, gaur egun dagoen fundatze-eremua aztertu eta gero.

38. Baliabide-zentro bat sortzea eraldaketa digitala gauzaten jarraitzeko.

39. Erreferentziazko langileak

6. KULTURA ETA KIROLA

KULTURA

1. Kultura-politikaren aurrekontu-zuzkiduraren helburuan lan egitea, % 1,5 izan dadin egiaz (Europako batez bestekoa).
2. Kulturaren Lanbideei buruzko Legea bultzatzea, sektoreko profesionali bermeak eta segurtasuna emateko, lan-baldintzak duinduko dituzten lan-hitzarmen berri eta gehiagori esker. Era berean, beharrezkoa da Nafarroako errealitatera egokitzea Artisten Estatutuaren onespena, kultura-sektorean gaur egun pairatzen diren baldintza prekarioak hobetzen direla bermatzearen.
3. Nafarroako kulturaren lege-esparrua eguneratzen lan egitea: 14/2005 Foru Legea, azaroaren 22koa, Nafarroako Kultur-ondareari buruzkoa; 32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duena; 10/2009 Foru Legea, uztailaren 2koa, Museoei eta Nafarroako Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzkoa; 12/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Artixboei eta Dokumentuei buruzkoa.
4. Kulturaren II. Plan Estrategikoa partaidetza bidez egitea 2023-2028 aldirako, Irakurketa Sustatzeko Plana gauzaten jarraitzea eta Publiko Berriak Sustatzeko plan berriak garatzea.
5. Eskubide Kulturalei buruzko Foru Legea bultzatzen eta garatzen jarraitzea.
6. Kultura-adierazpenetan euskara sostengatzen jarraitzea. Euskarari lotutako sorkuntza artistiko berritzailea bultzatzea, baita prestakuntza, ikerketa, ekoizpen, hedapen eta bitartekaritza lana ere.

KIROLA

1. Osasunaren zaintzara eta ohitura onetara bideraturiko politikak garatu eta koordinatzea, ariketa bizi-garapenaren eragiletzat harturik; Nafarroako Kirolaren Institutuak estrategia horiek zuzendu behar ditu, aintzat harturik kirolaren ahal osoa ulertzeko modu berri bat dela.
2. Gure legeria nazioarteko eta nazioko esparruetara egokitzea, Kirolari buruzko Lege berriarekin, sektorea modernizatzeko, kirolarien eskubideak aitortzeko eta haiek babesteko, baita kirol-jardueraren zuzeneko eta zeharkako zerbitzu guztiak ere.
3. Emakumeen kirola ikusarazten eta sustatzen jarraitzea, herritarrak emakumeen kirolera hel daitezen tresnak ezarriz, eskola-esparruak inplikaturik Nafarroako emakumezko kirolari erreferenteak ezagutarazteko, eta aurrerantzean ere emakumeen kategoriak sortzen laguntzea, emakumeen eta gizonen kirolaren arteko soldata-arrakalak murriztuz, bereziki kirol profesionalean.

4. Kirolean berdintasuna lortzeko eta LGTBI+ kolektiboa ikusarazteko lan egiten duten jarduerak bultzatzea eta gidatzea, hori guztia Hezkuntza eta Berdintasun departamentuekin koordinatuta.
5. Kirol-mezenasgoa garatzea, formula horrek gizarte zibilari aukera ematen baitio gizarte-inklusiara bideratutako kirol-proiektuen finantzaketan parte hartzeko.
6. Udal-instalazioen plangintza mankomunatua errazten duten ekintzak indartzea.
7. Kirol Azpiegituren Plana garatzea eta gauzatzea, eta Azpiegituren Plan berria bultzatzea, Nafarroako kirolaren, federazio eta klubetako, eta toki entitateen helburuak eta beharrak biltzeko, oinarrizko helburutzat harturik Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen eta gizartearen kohesioa.
8. Erregelamendu bidez garatzea 18/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroan Kirol-lanbidean Hasteari eta Jarduteari buruzkoa.

7. OGASUNA, BALIABIDE PUBLIKOAK ETA FISKALITATEA

1. Aitzina joatea zerga- eta finantza-politika egonkor, nahiko eta progresibo batean.
2. I+G+B garatzeko konpromisoa
3. Zerga-arloan dugun autogobernua baliatuz, enpresa mota jakin batzuk laguntzen segituko dugu, hots, inbertitu eta ekiten dutenak, balioa eta kalitatezko enplegua sortzen dutenak, eta ekosistema berritzaile eta jasangarri bat eratzen laguntzen dutenak.
4. Ekoizpen-eredu baten aldeko pizgarri fiskalak ematen jarraitzea, trantsizio energetikoa, eraldaketa jasangarria, ekonomia zirkularra eta eraldaketa digitala bultzatuz.
5. Sozietateen gaineko zergan gutxieneko tasa efektibo bat finkatzea eta pizgarri fiskalak berrikustea.
6. Ingurumeneko zerga-sistemaren sustapena lehenetsiko da.
7. Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Plana berritzea, lankidetzan eta koordinazioan arituz bai Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekin, bai Estatu eta Europako gainerako ogasunekin, eta baliabideak handituz xede horretan aitzina joateko.
8. Hitzarmen Ekonomikoa eguneratuta edukitzea, gure autogobernuaren funtsezko tresna gisa.
9. Zerga-sistema bidezko eta progresibo baten alde egitea, funts publikoen nahikotasuna bermatzera bideraturik, kapitalaren eta lanaren gaineko ezarpenaren arteko oreka bilatuz eta aukera-berdintasun handiagoa egonen dela bermatzen saiatuz, norberaren familia edo jaioterria zeinahi izanik ere.
10. Seme-alabengatiko zerga-arintzeak eta laguntza berriak nola bateratu aztertzea.

8. LURRALDE-KOHESIOA ETA TOKI-ADMINISTRAZIOA

1. Datozen lau urteetan tokiko finantzaketa-eredua finkatzea, dakartzan ondorio guztiak udal-zerbitzu publikoen eta azpiegituren hobekuntzarako zabal daitezen.
2. Tokiko enplegu publikoa egonkortzeko prozesuak burutzea, batik bat idazkaritzaren eta kontu-hartzailetzaren alorretan, toki-erakundeen kudeaketan egonkortasuna egon dadin, azken 30 urteetan ez bezala.
3. Despopulatzearen aurka borrokatzeko Nafarroako estrategia garatzea, printzipio gidari hauei jarraikiz: ikuspegi demografikoa zeharka eramatea administrazio publikoen legeriara, politiketara, planetara eta programetara; gizarte-ekitatea eta herritar guztiak eskubideak baliatzeko aukera askea izatea; jasangarritasuna; inklusioa; genero-berdintasuna; landa eta hiriaren arteko integrazioa eta oreka, eta gobernantza bat, oinarritzen dena administrazioen arteko lankidetzan, lankidetzan publiko-pribatuan eta parte-hartze publikoan; hori guztia azken legegintzaldian despopulatzearen aurka borrokatzeko abiarazi den departamentu-arteko batzordearen eskutik. Horren xedea da jendez husten ari diren Nafarroako eskualdeen biztanleria mantendu eta indartzeko baldintza sozialak, ekonomikoak eta lurralde-baldintzak ezartzea.
4. Estrategia onetsi ondoren, eta hartan oinarrituta, Gobernuak urtebeteko epean aurkeztuko du Despopulatzearen aurkako Borrokari buruzko Foru Lege bat, honako hauek ezarririk: bermerako landa-mekanismo bat, garaturiko politika publikoak neurtzeko adierazleak, eta funts berariazko bat, Lurraldea Egituratzeko Funtsa, Nafarroako Gobernuko departamentuetan kokatzeko zailtasunak dituzten zeharkako ekimenak garatzearren.
5. Mahai bat sortzea parlamentuko talde politikoekin, toki-administrazioaren erreformaren garapenean aitzina joateko. Bereziki, premiazkoa da eskumenak argitzeari ekitea eta, orobat, tokiz gaindiko organigramari. Baita toki-administrazioaren eta toki-ogasunen arloko araudia eguneratzea ere. Tokiko zerbitzu publikoen kostuen kalkulu zehatza eginen da, haien finantzaketa nahikoa dela bermatzeko.
6. Bidaiarien hiriarteko garraiorako Nafarroako Garraioaren Plan Integrala (PITNA) garatzea, eskualdeek hura ezartzeko zer premia dituzten entzunez.
7. Nafarroa osorako Banda Zabaleko II. Plana ezartzen jarraitzea.
8. Ekitatea bermatzea zerbitzu publikoak eskuratzeko (hezkuntza, osasuna, etab.), lurralde-arrakala murrizteko xedez.
9. Despopulatutako eskualdeetan diskriminazio positiboko irizpideak aztertzea, eta Pirinioetako gobernantza-eredua Estellerrian edo Zangoza aldean sustatzea, besteak beste.
10. Toki-erakundeek oinarritzko azpiegituren eta ekipamenduen arloan dituzten premiei buruzko azterlan bat egitea, kostuak balioetsiz, eta, ondoren, inbertsio-plan berariazko bat egitea.

AZPIEGITURAK

1. Nafarroako ubidearen bigarren fasearen proiektuan aitzina joatea. Proiektu horri esker, edateko ura, ureztatzeko ura eta kalitatezko nekazaritzako elikagaien industriarako ura eraman ahal izanen dira Erriberara. Nafarroa eta estatuaren arteko hitzarmen bat sina dadin bultzatzea, fase hori gauzatu eta ustiatzeko, oinarri harturik arlo ekonomiko eta sozialetan bideragarria den proiektu bat.
2. Errepideen IV. Plan Zuzentzailea ezartzea (2021-2029).
3. N121A errepidearen eraldaketa osoa bukatzea, 2+1eko errepidea izan dadin, segurtasuna hobetzeko, Belate eta Almandozko tunelak bitan banatzeko, eta Olabe, Burutain eta Arraizko saihesbideak egiteko.
4. A-15 autobia bultzatzea Medinaceliren eta Tuteraren artean, Foru Komunitateari dagozkion A-15 autobien bi zatiak bukatuz.
5. Espainiako Gobernuarekin batera lan egitea Noingo nodo logistikoa modernizatzeko, trenbide-linea bat eraikitzeko, Landaben, Arazuri eta Orkoiengo industrialdeei tren bidezko zerbitzua emanen diona, eta Nafarroako Erriberan zer nodo logistiko behar diren jakiteko.
6. Gaitasun handiko bideen kudeaketa hartzea NAFARBIDE enpresa publikoaren bidez, eta ibilgailu astunendako bidesariak ezartzea.
7. Lan eginen da Nafarroako garraio-sektorearekin laguntza-neurri egokiak adosteko.
8. Garraio-txartel bakarra guztiz ezartzea.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA

1. Udalek eta gune naturalak kudeatzen dituzten eragileek sorturiko Red Explora Navarra/Nafarroa Ezagutu Sarea indartzea eta zabaltzea, tokiko garapena bultzatzen duten azpiegituretan, zerbitzuetan eta ekimenetan inbertitzeko gaitasuna hobetzeko eskualde bakoitzean.
2. Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusteko lanak bukatzea, eta, behin betiko agiria oinarri harturik, erabakitzea estrategiaren zer alderdik izan behar duten arau-maila loteslea.
3. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Lege berri bat egitea, garapen jasangarriaren printzipioak jasoko dituen, lurralde-antolamenduko figurak berrikusiko dituen eta, 1.000 biztanletik beherako udalerrietan, hirigintza-espeditenteak izapidetzeko prozedura erraztu bat ezarriko duena, eta administrazio-prozedurak arinduko.

9. ENPLEGUA ETA AURRERAPEN EKONOMIKOA

ENPLEGUA

1. 2021-2024 Enplegu Planean burutzeko dauden gaiak ebaluatzea eta garatzea, datozen urteetarako plan berri bat aitzina eramateko Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluan, bereziki aintzat hartuta etengabeko helburuak direla Nafarroako enpleguan eta lan-osasunean kalitatea sortu eta hobetzea eta desberdinkeriak ezabatzea, genero-arrakala eta langabezia murriztea eta zailtasun gehien dituzten kolektiboen babesa hobetzea.
2. Langileak eta enpresak eraldaketa berde eta digitalera egokitzen laguntzea, prestakuntza emanez eta akreditazio profesionala orokortuz, enplegua bilatzeko tresna pertsonalizatuak eta gaitasun berriak eskuratuz.
3. Pertsonen enplegarritasuna eta laneratzea bermatzea (2021-2024 aldirako Enpleguari Laguntza Aktiboa emateko Espainiako Estrategia ezartzea)
4. Ezkutuko ekonomiaren eta lan-iruzurraren aurkako borroka areagotzea, Administrazio Zentralaren eta Foru Administrazioaren artean koordinatutako politika publikoak garatuz
5. Irmo bultzatzea Nafarroako Gobernuak Enpresen Gizarte Erantzukizunaren arloan gaur egun dituen tresnak. Era berean, jarduketa-plan bat egitea enpresaren eredu inklusiboa eta partaidetzazkoa sustatzeko.
6. Lan-harremanen eta itun sozial eta ekonomikoaren inguruko kultura babestea, elkarrizketa sozialaren bidez, langileen lan-baldintzen hobekuntzan aitzina joateko eta desberdintasun sozioekonomikoak murrizteko.
7. Aukera-berdintasunera bideraturiko enplegu-politika aktiboak garatzea, lehentasuna emateko lan-arloan zailtasunik handienak dituzten taldeei: emakumeei, gazteei, 45 urtetik gorakoei, iraupen luzeko langabeei, migratzaileei, desgaitasuna duten pertsoneri edo bazterketa-arriskuan daudenei, baita Enpleguari buruzko Estatuko Lege berrian ageri diren guztiei ere
8. Itunpeko ekimenak abian jartzea, lan-denbora murrizteko proiektu berritzaileak abiarazteko saiakerak egin daitezten enpresaren esparruan (4 eguneko astea edo lanaldia murriztea), telelanaren ereduak, kontziliaziokoak eta enpresen kudeaketa ekonomikoa eta lanekoa demokratizatzeakoak.
9. Lan-osasunari eta prebentzioari dagozkien aurrekontu-partidak bermatzea.
10. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren esparruan, ergonomia-zentro bat susta dadin aztertzea, gaixotasun profesionalen jakinarazpenen % 90en kausak aztertuko dituen, nahasmendu muskulu eskeletikoan ondoriozkoak baitira, kausa horiek konpontzen lagunduko duten neurriak hartzeko.
11. Nafar Lansareri lan-merkatuan duen bitartekaritza areagotzeko behar adinako baliabideak bermatzea, Nafarroako Gobernuak eskura dituen tresna guztiak erabiliz (salbuespenak aztertzea, dirulaguntzak baldintzatzea, etab.) Nafar Lansareren bidezko kontratazioa sustatzeko.

Genero-arrakalen aurka borrokatzeko neurriak sartzen jarraitzea Nafar Lansarek lan-merkatuan egiten duen bitartekaritzan.

12. Kontrataziorako laguntzen egiazko eragina ebaluatzen segitzea, bai enpleguaren sorreran, kalitatean eta iraupenean, bai sektorerik kalteberenei sarbidea errazteko orduan, egiaz eraginik handiena dutenei lehentasuna emanaz.
13. Etengabeko prestakuntza eta lanerako prestakuntza bultzatzen jarraitzea, Nafarroako lurraldeen arteko aldeak eta eremu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, arreta berezia jarriz planifikatutako prestakuntzan, eta birkualifikazioa zein lanbide-orientazioa erraztuz, batez ere lan-eskari mugatua duten landa-inguruneetan eta kolektibo kalteberen gizarteratzean eta laneratzean.
14. Enplegu babestuko baliabideak indartzea eta dibertsifikatzea, baliabideak bideratuz ondotik lan-merkatuan sartzeko aukera handiena ematen duten proiektuetara, eta haien xedeak gizarteratze-politikekin elkartzuz.
15. Enplegu zentro bereziei lotutako laneratze-enpresak indartzea, inbertsiorako laguntzak handituz jarduerak dibertsifika ditzaten, kontrataziorako erreserba-betebeharrak betez eta lizitazio publikoetan klausula sozialak sar daitezzen indartuz.
16. Lan-merkatuan egiazko aukerak dituzten enplegu- eta prestakuntza-programak sustatzea.
17. Negoziazio kolektiboaren behatokia garatzea Gizarte Errealitatearen Behatokiaren esparruan.
18. LH dualaren egungo eredia indartzea, pertsonengandik eta lan-merkatuaren lan-eskakizunetatik hurbil dagoen eredu integratu bat bermatzen jarraitzeko.
19. Lurraldeko prebentzio-ordezkararen figura indartzea.
20. Lan-historia historia klinikoaren funtsezko atala izatea aztertzea, hartara, diagnostikoak barne har dezan ea kausazko loturarik dagoen lanpostuetan arrisku-faktoreen eraginpean egon izanarekin.
21. Lan-ingurune seguru eta osasungarriak sustatuko dituzten neurriak ezartzea, eta lantokian istripuak, arrisku psikosozialak eta gaixotasun profesionalak prebenitzeko kulturari inbertitzea. Era berean, laneko ezbeharren aurkako borroka bultzatzea NOPLOIren bidez, eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan.
22. Azterketa tekniko-juridiko bat egitea, aztertze ezinbestean bete beharreko zer neurri sustatu behar diren enpresen esparruan, babesa zabaltzeko sexuagatiko, jatorriagatiko edo sexu-orientazioagatiko diskriminazioen aurrean.

EKINTZAILLETZA ETA ENPRESA-GARAPENA

1. Ekintzailtzarako prestakuntza ezar dadin erraztea eta sustatzea, bereziki azpimarratuz jarrera ekintzailea eta hari lotutako gaitasunak.
2. Nafarroako Gobernuak herritar ekintzaileei laguntzeko dauzkan zerbitzu eta programa guztien ikusgarritasuna eta irisgarritasuna hobetzea.
3. Ekintzaileendako zerga-araubide bereziari eustea. Enpresak sortzeko eta hazteko finantzaketa-tresnak indartzea.
4. Proiektu ekonomikoak sortzeko eta finkatzeko laguntza eta aholkularitza ematen segitzea.
5. Laguntza-sistema berriazko bat bultzatzea jabeek utzi nahi dituzten enpresa bideragarrien oinordekotza enpresarialetarako, inbertsio-funts berriazko bat sortuz horretarako.
6. Ahaleginak egitea digitalizazio-prozesua enpresa txikietara eta langile autonomoengana irits dadin.
7. Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen ekosistema babesteko neurri berriak, eta inbertsioa erakartzea, baita talentua eta nazioarteko inbertitzaileak erakartzeko neurriak indartzea ere.
8. Eraldaketa Ekologiko eta Digitaleko Plan bat bultzatzea, gure industriari, ETEei, eta merkataritza eta turismoari bideratua, asmo handiko inbertsioa lortzeko.
9. Nafarroako IRIS Berrikuntza Digitalaren Poloa behin betiko egoitza fisiko batez hornitzea, une honetan modu digitalean inplementatzen dituen lanak garatzen jarrai dezan, hots, Nafarroako digitalizazio-leihatila bakarra izan dadin, orientabideak eta aholkularitza, eta laguntza publikoen bilduma bat eskainiz, enpresek laguntza horiek eskura ditzaten, prozesu horri ekiteko. Horrez gain, balio erantsi handiko zerbitzuak eskainiko dizkie espermentaziorako, prestakuntzarako eta azpiegitura teknologikoetarako, eta aukera emanen die, orobat, Berrikuntza Digitalaren Poloen Europako Sareko beste erakunde batzuekin esku hartzeko eta lankidetzan aritzeko hala Espainian, nola Europan.
10. Nafarroako S4en esparruan, EBko Politiken eta Joeren Behatoki bat bultzatzea, oinarria izan dadin alde zuzeneko azterketa estrategiko bat egiteko, Nafarroan hartuko diren politiken jarraipena egiteko.
11. Arlo ekonomiko-finantzarioko sozietate publikoei laguntzen jarraitzea, osagarriak izan daitezkeen bilatuz eta haien arteko koordinazio egokia ziurtatuz, Nafarroako garapen ekonomikoa inplementatzeko, eta, aldi berean, Foru Komunitateko ekoizpen-sareari segurtasuna emateko eta hura babestu eta sustatzeko. Enpresa-ekimen berriak babesteko eta daudenak indartzeko plan estrategikoak ezarriko dira, hala behar izanez gero, batez ere sektore estrategikoei lotutakoak. Era berean, enpresak errotzeko behar diren neurriak bultzatu eta garatuko dira.
12. Talentuaren Plan Estrategikoa abian jartzea.

ENPLEGU AUTONOMOA

1. Prestakuntza, orientazioa eta laguntza indartzen jarraitzea, lan autonomoko ekimenak sendotzearen.
2. Kolektiboaren trantsizio ekologikoa eta digitala bultzatzea.
3. Ezkutuko ekonomiaren eta ekonomia desleialaren aurkako neurriak areagotzea.
4. Neurriak ezartzea enpresek autonomo faltsuak erabiliz egiten dituzten iruzurren aurkako borroka indartzeko.
5. Belaunaldi-erreleboaren programa hobetzea autonomoen kolektiboan, batez ere landa-eremuetan.
6. Lana eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurriak ezartzea.
7. Bigarren aukerako mekanismoak txertatzea autonomoendako.
8. Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua indartzea, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako langile autonomoak ordezkutzen dituzten elkarten arteko erabaketan, elkarrizketan eta eztabaidan parte hartzeko organo iraunkorra izan dadin.

EKONOMIA SOZIALA

1. Ekonomia Kooperatiboaren eta Sozialaren Nafarroako Kontseilua bultzatzea, partaidetza-organo iraunkorra izan dadin Nafarroako Gobernuak eta ekonomia hori ordezkutzen duten elkarteek erabakiak hartzeko, eta elkarrizketa zein eztabaidarako.
2. Gizarte-ekonomia sustatzeko politikak hobetzea.
3. Krisian dauden enpresak, sozietate anonimoak edo sozietate mugatuak langileen jabetzako kooperatiba edo lan-sozietate bihur daitezzen sustatzea, betiere ekonomikoki bideragarriak diren jardueretan lan egiten badute, tamaina ezberdineko enpresak badira, bai industriaren sektorekoak, bai zerbitzuen sektorekoak.
4. Ekonomia Sozialaren II. Plan Estrategikoa ebaluatzea eta III. Plana idaztea.

ZIENTZIA

1. Erkidegoko itun handi bat lortzea, zientziarako BPGren ehuneko handitzeko eta inbertsio horri denboran zehar eusteko konpromisoa barne hartuko duena.
2. Europako Batzordeak ezarritako helburuan lan egitea. Haren arabera, I+G+B arloko inbertsioa BPGren % 3 izan behar da 2030ean, inbertsio publikoa % 1,25era iritsi behar da, eta aitzina joan behar da I+G+B arloko eskumena Nafarroara transferitzeko.

3. Nafarroak bultzada irmoa behar du enpresen I+G+Brako, batez ere gure ETEendako. Horregatik, I+G+Bren sustapena indartu behar da, laguntzak eta dirulaguntzak behar bezala uztartuz zerga-pizgarriekin. Horrek berekin dakar I+G Programa Estrategikoak indartzea, baita enpresetako I+Ga ere, gure enpresetara teknologia transferitzea ekarriko duten ekimenetarako.
4. Lanbide horietan emakumeak egotea bultzatuko duten STEM bokazioak sustatzea.

INDUSTRIA

1. Enpresen eraldaketa berdea eta digitala eta ekoizpen-ereduaren eraldaketa bultzatzea eta laguntzea.
2. Berrindustrializazio-plan bat, eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan prestatua, kontuan hartuko dituen zer premia ditugun eta zer baliabide behar ditugun gure industria aurrerantzean ere erreferentea izan dadin digitalizazioan, berrikuntzan, kalitatean, produktibitatean eta lehiakortasunean:
 - Beharko diren profil berriak bilatzea, langileak prestatuz eta birkualifikatuz,
 - Nafarroako III. Industria Plana guztiz garatzea, eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan jardunez: Nafarroako industriaren hazkundera eta garapena, trantsizio berdea eta digitala babestea eta laguntzea, garapen estrategikoko sektoreetan eta lehentasunezko balio-kateetan jarduera ekonomiko berria sortzen eta erakartzen laguntzea.
3. Industria-enpresa gehiagori laguntzea, enpresa txiki eta ertainetan arreta jarrita, ahaztu gabe dagoeneko finkatuta dauden eta/edo handiagoak diren enpresek behar dituzten laguntzak.
4. Eraikuntzaren Industrializaziorako eta Robotikarako Zentro Nazionala abian jartzea, sektoreko eragile guztiak kontuan hartuz.
5. Aitzina joatea Nafarroako lurralde-koheretza handitzen, industria-jarduera izanen delarik koheretza hori gidatuko duen bektorea, garapen-plan berriaren bidez eginez, eskualde bakoitzaren egoerara eta sektoreetara egokituak –esparru-erreferentziatuz 2021-2025 Industrializazio Plana harturik– eta lurralde bakoitzean berriaz hedatuko direnak (Erriberan, Erdialdean, Estellerrian, Iruñerrian, Sakanan, Pirinioetan eta Pirinioaurrean).
6. Industria-sektorean eta bertako zuzendaritza postuetan emakume gehiago sartzeko bidean aitzina joan beharra dago.
7. Industriari buruzko foru lege bat egitea, gure enpresek behar duten eraldaketa digitala eta ekologikoa bikoitzeko aurrekontu-esparrua bideratuko duena eta oinarri juridikoa emanen diona, industriarako lurzoru beharrei helduko diena eta Foru Interes Estrategikoko Proiektuaren figura bultzatuko duena, proiektuak arin kudea daitezkeen lurraldearen, ingurumenaren eta gizarte-koheretzaaren ikuspegietatik.

MERKATARITZA ETA TURISMOA

1. Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, merkataritza-sektoreko egungo behar eta joeretara egokitzeko, digitalizazioari bereziki erreparatuta, hurbileko txikizkako merkataritzaren arazoei irtenbidea ematen saiatuz, eta landa-merkataritza eta Nafarroako eskulangintza indartuz.
2. Berrikuntza eta bikaintasunerako neurri espezifikoak merkataritza-sektorean, berariazko estrategiak ezarriz eta/edo sektoreak berak proposatutako neurrietan lagunduz.
3. Merkataritza ibiltariaren plana, kontsumo-ohituretan gertatzen ari diren aldaketa guztien ondorioak jasaten ari den sektore hori lagunduz.
4. Nafarroako merkataritzaren irudia indartzea eta haren merkataritza-eskaintza sendotzea.
5. Nafarroako Landa Merkataritza Dinamizatzeko Zerbitzuaren sarea sendotzea, Toki Ekintzako Taldeekin lankidetzan.
6. Hurbileko Txikizkako Merkataritza Sustatzeko 2022-2025eko Plana ezartzea, merkataritza eta hurbileko produktua babestuz, saltokiak mantendu daitezen sustatuz, batez ere despoblatzeko arrisku handiena duten eremuetan.
7. Turismoa sasoikakoa izan ez dadin sustatzea. Nafarroako turismo-sistemaren jasangarritasuna. Nafarroako Turismoaren Plan Estrategikoaren neurriak osatzea
8. Nafarroako Turismoaren Plan Estrategikoa garatzea, oinarri harturik trantsizio berde eta jasangarria, energia-efizientzia eta trantsizio digitala. -
9. Helmugetako jasangarritasun turistikoko planak eta helmugen arteko kohesio-jarduerak erabat burutzea, Next Generation funtsen bidez.
10. Turismoak Erkidegoko eremuetan duen pisua indartzea, Lurralde Kudeaketako Unitateak sendotuz, arlo horretan ere lurralde osoaren kohesioa bilatuz, espazio naturaletako erabileren eta bisitarien fluxuen kudeaketa hobetuz, eta eskaintza zabalduz eta dibertsifikatuz.
11. Aliantza nazionalak eta nazioartekoak indartzea helmuga-sareetan, gastronomiaren, naturaren eta kulturaren arloetako sareetan, eta bilera zein ekitaldietan.

10. INGURUMENA ETA TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO EKINTZA

1. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen garapena eta aplikazioa bultzatzea, legealdi honetan egiazki aplikatu dadin.
2. Gobernuak, 2024ko apirilaren 1a baino lehen, foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, eta hartan jasoko da zein diren ingurumen arloko zerga neurriak egokienak Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen helburuak hobeki betetzeko.
3. Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea bultzatzea. Gobernuaren lehen ehun egunetan, lege-proiektu bat aurkeztuko da ATENA (Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia) sortzeko. Gobernuaren lehen hogeita hamar egunetan, fiskalitate berdeari buruzko lantaldea eratuko da, Ogasun Departamentuak abiarazi ezean. Eguzki-mapa eta mapa eolikoa egitea. Karbono-aztarna neurtzeko derrigortasuna.
4. Zerga, ingurumen eta energia arloetan eskumenak dituzten departamentuek laguntza-talde tekniko bat eratuko dute, aurreko paragrafoan aipatutako foru lege proiektu hori edo horiek egiteko.
5. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legean aurreikusitako gobernantza-tresnak bultzatzea: Klima-aldaketaren nafar herritar-batzarra, Klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren departamentuarterako batzordea, eta Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua.
6. Gobernuak ezarriko du zer tipologiatakoak diren Foru Komunitateko lurraldean diharduten enpresak, eta, oinarrizko araudian ezarritakoa betetzeaz gain, beren karbono-aztarna kalkulatu eta argitaratu beharko dute.
7. Bultzatuko da administrazio-klausula bereziak txerta daitezzen, jakinarazi behar izateko zein den lizitazioetako produktu, zerbitzu eta horniduren karbono-aztarna, kontratazio publikoaren araudian adierazitako ildotik.
8. Nafarroako Gobernuak Nafarroako administrazio publikoen kontratazio publiko ekologikorako plan bat onetsiko du.
9. Klimaren ikuspegia txertatu beharko da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2024ko Foru Legearen proiektuetan.
10. Nafarroa 2030 Nafarroa Green trantsizio ekologikorako estrategian zehazturiko ekonomia berde berria sustatzea, barne harturik energia berriztagarrien (eolikoa, fotovoltaikoa, biomasa, biogasa) eta energia berriztagarri horietatik lorturiko hidrogenoaren bultzada estrategikoa. Eta sistemari behar adinako egonkortasuna bermatzeko behar diren energia-azpiegituz hornituz estrategia hori.

11. Aitzina joatea biodibertsitatea kontserbatzearekin bateragarriak diren energia berriztagarriak erkidegoan ezartzeko proiektuetan, eta, gainera, alderdi hauek sustatzea: autokontsumoa, energia hurbilean sortzea eta energia-komunitateak.
12. Mugikortasun jasangarria bultzatzen jarraitzea: mugikortasun jasangarriko neurri berriak, bizikletaren sustapena, azpiegitura berriak, ibilgailu elektrikoak erosteko laguntzak, kargatzeko puntu gehiago paratzea, autobus eta trenen sareak zabaltzea eta tarifan murrizketa bultzatzen segitzea.

EKONOMIA ZIRKULARRA

1. Ekonomia Zirkularra Garatzeko Agenda ezartzea.
2. Nafarroa Zirkular garatzea, enpresetan ekonomia zirkularra ezar dadin sustatzeko lankidetzaren publiko-pribatuko ekimen gisa.
3. Ekonomia zirkularreko *hub* bat sortzea. Prestakuntza aurreraturako, zaintza teknologikorako eta ekonomia zirkularreko proiektu estrategikoen garapenerako gune bat abian jartzeko eta garatzeko konpromisoa. Haren helburua izanen da enpresa-esparruaren eta hezkuntza-esparruaren arteko lotura izatea, ekonomia zirkularren inguruko talentua sortu eta enpresek beren eskaerak asebetu ditzaten.

NATURA-INGURUNEAREN KUDEAKETA

1. Arrantzaren kudeaketari buruzko foru lege-proiektuaren tramitazioa bultzatzea parlamentuan.
2. Ehizaren kudeaketari buruzko foru lege-proiektua prestatzen jarraitzea.
3. Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko foru lege-proiektuaren idazketa bultzatzea. Nafarroako biodibertsitatearen 2030 estrategia bat onestea, biodibertsitatearen galera eta ekosistemen narriadura saihesteko tresna izan dadin. Behar bezala eguneraturik eta indarrean edukitzea bai basa-espezie mehatxatuen katalogoak (flora eta fauna) eta bai naturaren eta paisaiaren babeserako figurak (Nafarroako Naturaguneen Sareko eta Natura 2000 Sareko guneak). Nafarroako Azpiegitura Berdearen Estrategia izapidetzen jarraitzea.
4. Nafarroako Basoetarako Agenda garatu eta S4rekin lotzea, Nafarroan basogintzaren sektoreak duen garrantzi estrategikoa nabarmenduz.
5. Basoetako suteen prebentzioaren eta Nafarroako baso-lurra leheneratu eta mantentzearen arloko betebeharrak erantzun ahal izateko baliabideak indartzea, 15/2022 Errege Lege Dekretuak ekarritako betebeharrak bete daitezela.
6. Ibaiak eta ibaiertzak lehengoratzeko bultzatzea, inbertsio berekien bidez, Europako proiektuen bidez eta toki-erakundeei laguntzak emateko deialdiak baliatuz.

7. Aitzina joatea Nafarroako Uraren 2030 Esparru Estrategia Integratuaren garapenean eta ezarpenean.

11. LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA

1. Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoari dagokionez, nekazaritza-politika guztien erdigunean nekazaritzako familia-ustiategi profesionala dagoen eredu bat defendatuko du Nafarroak, gizarte zein ingurumen arloan, baina orobat arlo ekonomikoan, jasangarriak diren nekazaritza-ekoizpenak sustatuko dituena.
2. Nafarroako Landa-garapenerako 2023-2027 Programa bultzatzea, Nafarroak landa-garapenaren arloan dituen eskumenak baliatuz eta barne harturik hainbat jarduketa, lagunduko dutenak gure nekazaritza-ustiategien eta nekazaritzako elikagaien enpresen lehiakortasuna handitzen, gazteak eta emakumeak alorrera sartzen, tokian tokian ekoizten eta ekoizpen hori sustatzen, eskaintzaren integrazioa eta balio-katearen oreka hobetzen, eta orobat lagunduko dutenak ingurumen-lehentasunei heltzen, eremua klima-aldaketara egokitzen, berrikuntza garatzen, eta, azken batean, gure landa-eremuak bideragarriak izaten segitzeko balio duten guztiak gauzatzen.
3. Etxaldetik mahaira estrategia bultzatzea eta trantsizio ekologikoa bultzatzea, pestiziden erabilera murrizteko 2030erako, esperimentazioa eta I+G+B sustatuz sektorean. Eta, orobat, izurriteen kudeaketa integratuan esperimentatzea eta ustiategiendako aholkularitza INTIAren bidez.
4. I+G+B, digitalizazioa, ezagutzaren transferentzia eta aholkularitza inpartziala sustatzea, funtsezko tresnak baitira Nafarroako nekazaritzako elikagaien sistemaren trantsiziorako, jasangarritasunerantz, egokitzapenerantz eta klima-aldaketa arintzerantz jo dezan.
5. Nekazaritza ekologikoaren plan estrategiko bat onets dadin bultzatzea, ibilbide-orri bat ezarriko duena Europak ekoizpen-mota horretan eskatzen dituen baldintzak betetzeko.
6. Abeltzaintza Estentsiboaren Plan Estrategikoan bildutako neurriak bultzatzea, bereziki azpimarratuz LGPan 2024an ezarri beharra dagoen baso-artzaintzaren neurria. Helburu izanen du galdutako larreen azalera lehengoratzeko, sastrakaz garbituz eta bazkatarako aprobetxatuz, teknologia berriak baliatuz eta prestakuntzaren bitartez.
7. Tokiko ekoizpenak argi eta garbi bultzatzea, dauzkagun kalitatezko marken bidez, ekoizpen integratua barne. Era berean, gure arraza autoktonoei eta galzorian daudenei laguntzearen alde egin behar du gobernua, lurraldera egokituak eta lotuak daudelako, eta baliabide naturalak ahalik eta ongiena aprobetxatzen dituztelako, elikadura-subiranotasunaren eta elikadura-segurtasunaren kontzeptuen ildotik.
8. Zentro logistikoa bat abiaraztea lehen sektoreko ekoizle txikiendako, tokiko produktua banatzeko, baita tokiko produktu jasangarria eraldatzeko eta merkaturatzeko ekimenen inkubagailu bat ere. Helburua da lehen sektoreari elikagaien balio-katean duen posizioa hobetzeko aukerak eskaintzea, eta kalitate handiagoko tokiko produktuen eskaria asebetetzea, berotegi-efektuko gasen isuriak murriztuz eta ekonomia zirkularreko sistemak sustatuz, ontzien erabilera murrizteko eta elikagai gutxiago alferrik galtzeko.

9. Nekazariak balio-katean duten posizioa hobetzea: "katearen legearen" eta prezioen behatokiaren gaineko kontrol-tresnak sustatzea.
- 10.
11. Ureztapenei buruzko 2023-2042 Foru Plana bultzatzea.
12. Ureztatze tradizionalak moderniza daitezen bultzatzea, ezinbesteko tresna baitira klima-aldaketako eta lehorteko egoera batean. Bestetik, gerta liteke ureztatzeko ura modu eraginkorrean erabiltzea eta kontsumoa kontrolatzea ezinbesteko baldintzak izatea Nekazaritza Politika Erkidearen laguntzak kobratzeko.
13. Nafarroako Gobernuak egiten dituen ureztatze-proiektu guztietan energia berriztagarrien alde egitea ponpaketarako energiaren mende dauden sistemetan.

12. HIZKUNTZA POLITIKA

1. Euskarari buruzko akordio sozial eta politiko zabal bat bultzatzea, Nafarroako idiosinkrasiaren eta errealitate soziolinguistikoaren isla izanen dena, premiei erantzunen diena eta ahalbidetuko gaituena aske izaten Foru Komunitatean hitz egiten diren hizkuntzekin harremanak izateko eta haiekin bizitzeko maneran, euskara eztabaida alderdikoitik eta liskarretik behin betiko aldenduz eta diskriminazio-sentimenduak uxatuz herritarren artean.
2. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak adostasuneko arau eta, halakorik balego, garapeneko arau izaten segituko du, eta aurreko paragrafoan azaldutako printzipioen arabera aldatzen ahalko da, LORAFNAn horri buruz xedatutakoa errespetatuz. Foru legearen garapena, halakorik balego, Nafarroako errealitate soziolinguistiko ezberdinak islatuko dituen partaidetza-prozesu baten bidez gauzatuko litzateke.
3. Euskararen erabilera arautzen duen araudia egokitzen jarraitzea, lurraldearen eskariarekin eta errealitate soziolinguistikoarekin bat datorren tratamendu bat bermatzeko, eta, aldi berean, herritarrek euskara erabili eta ezagutu dezaten babesteko, borondatearen eta aukera-berdintasunaren printzipioekin bat. Departamentuetako hizkuntza-planak abian jartzea 2023-2027 aldirako, 2019-2023 legegintzaldian egindako lana irizpide harturik.
4. Euskara sustatzea komunikabideetan, bizitza sozial eta kulturean, bereziki gazteei zuzendutako programetan, eta helduak euskalduntzeko irakaskuntza sustatzea.
5. Erakunde publikoekin egindako lankidetzak-hitzarmenei jarraipena ematea, eta/edo, bestela, arlo publikoaren osagarri, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-erakundeekin egindakoei.
6. Berezko hizkuntzak dituzten autonomia erkidegoekin eta Europako erkidegoekin dagoen koordinazio-lanari eustea, errealitate instituzionala eta indarrean dagoen legeria errespetatuz.
7. Aztertzea eta, hala behar bada, kontuan hartzea Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna aplikatzeari buruz egindako gomendioak eta "Adituen Batzordearen ebaluazio-txostenak" egindako oharak.
8. Euskarabidea erakunde autonomo gisa mantentzea, gaur egun dituen eskumenekin eta bere jarduera garatzeko behar adina aurrekontu eta baliabiderekin.

13. FUNTZIO PUBLIKOA, JUSTIZIA ETA BARNEKOA

1. Sindikatuen adostasuna bilatuz, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutu berri bat idaztea, indarrean dagoen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua ordeztuko duena, XXI. mendeko Administrazio Publikoaren beharretara egokiturik.
2. Merezimendua, gaitasuna, esperientzia eta jarduna oinarri dituen administrazio-karrera egiazko bat bultzatzea eta oinarri horiek aldizka-aldizka ebaluatzea.
3. Aitzina joaten segitzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan behin-behineko langileen kopurua zorrotz murrizten, behar besteko lan publikoaren eskaintza bat onetsiz gaur egun egiturazkoak diren aldi baterako lanpostuak lanpostu finko bihurtzeko, behin-behineko lanpostuak gehienez ere guztien % 8a izan daitezen.
4. Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea guztiz garatzea.
5. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzeko jada landu den Foru Dekretua onestea.
6. Berdintasun-planak indartzea Administrazio Publikoko langileen politikan.

14. MEMORIA, BAKEA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

1. Ezinbestekoa da ETaren eta beste erakunde terrorista batzuen terrorismoaren biktimei babesa eta elkartasuna ematen jarraitzea, haiek ordezkaten dituzten elkarteekin lan eginez.
2. Arlo hauek sustatzen jarraitzea: balioetan heztea, giza eskubideak sustatzea eta Nafarroako gizartearen partaidetza, memoria partekatu bat eta iraganarekin alderatzeko moduko kontakizun bat eraikitzeak. Aitzina joatea indarkeria terroristaren ondorioei buruzko kontakizun ez-baztertzailer batean, terrorismoaren biktimei testigantzen, bizipenen eta gogoeten lekukotzak bilduz, indarkeria, isiltasuna eta, batzuetan, gizartearen zati handi baten ahanztura sufritu dituzten pertsonak ezagutzeko, haiengana hurbiltzeko eta enpatia adierazteko.
3. Memoria Demokratikoaren arloan, lege memorialistak garatzen jarraituko dugu, hala nola Memoria Historikoari eta Memoria Demokratikoari buruzko Foru Legea, Memoriaren Tokiei buruzko Foru Legea, baita biktimei senideei eta elkartei emandako laguntza instituzionalaren alde egiten ere.
4. Nafarroako 2021-2024ko Bizikidetzarako I. Plan Estrategikoa garatzen jarraitzea, eta, hura burutzean, II. Plan Estrategikoa egitea, ahalik eta adostasun eta parte-hartze handienaren bitartez, Nafarroako Gobernuak garatutako bizikidetzak-politika publikoari segida emateko.
5. Terrorismoaren Biktimei buruzko egungo Foru Legea alda dadin bultzatzea, ahalik eta adostasun handienarekin, hura eguneratzeko eta biktimei egungo arazoetara egokitzeak.
6. Erabat garatzea 16/2019 Foru Legea, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Bereziki, Errekonozimendu eta Erreparazio Batzordea bultzatzea, erakunde publikoek giza eskubideen urraketa guztiak artatzeko oinarri gisa.
7. 2017an ezarritako "Eskutik - De la mano" programa indarkeria politikoko biktimei guztiendako sustatzea.
8. Memoriari lotutako hezkuntza-curriculum diseinatzea.
9. Hobien mapa eguneratzen eta zabaltzen jarraitzea.
10. Nafarroan dagoen sinbologia frankistaren errolda eguneratzea, Nafarroako espazio publikoan sinbologia hori ezabatzen jarraitzeko, eta, orobat, erregimen frankistaren ordezkari eta laguntzaile nabarmenei kondekorazioak kentzen jarraitzeko.
11. San Kristobal Gotorlekuan memoria-proiektu bat garatzea, Memoria Historikoaren toki gisa.
12. Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzak-protokoloa erraztea, elkarrekin aurre egiteko Erorien Monumentuaren etorkizunerako proiektu adostu bati.

13. Rozalejoko Markesaren eraikinaren birgaitzea bukatzea, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren egoitza eta Nafarroako Memoriaren Institutuaren egoitza izan dadin.

15. NAFARROA, BERE AUTOGOBERNUA ETA LANKIDETZA INSTITUZIONALA

AUTOGOBERNUA

1. Aitzina joatea Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legean ezarritako eskumenen garapen erabatekoan; hartara, Nafarroako Gobernuak negoziazioak abiaraziko ditu berehala, LORAFNAk Nafarroari aitortutako eskumenak transferi ditzan Estatuak.
2. Aldebiko harremanak eta lankidetzaharremanak bultzatzea, erakundeen errespetutik eta indarreko legeriatik abiatuta, autonomia-erkidego mugakide guztiekin eta Espainiako Gobernuarekin.
3. Nafarroako Foru Komunitateko berezko sinboloekin konpromiso argia mantentzea.
4. Mugaz haraindian eta eskualdeen artean dugun posizioari eustea, lankidetzan segituz Nafarroa-Aragoi-Errioxa Ebroko Aliantzan, Akitania Berria-Euskal Autonomia Erkidegoa-Nafarroa Euroeskualdean, Pirinioetako Lan Elkartean, Arku Atlantikoko Makroeskualdean edo autonomia-erkidego mugakideekin eta beste autonomia-erkidego batzuekin ditugun aliantzetan.
5. Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaietarako Kontseiluan (ECOFIN) egoten segitzearen alde egitea, Nafarroako Foru Ogasunaren Estatuko Ordezkaritzaren barnean, batez ere politika fiskalei buruzko erabakiak hartzeari eta gainbegiratzeari dagokionez, baita Europako zerga-harmonizazioko prozesuan ere, kontuan harturik Nafarroak arlo horretan duen espezifikotasuna, egoera berean dauden beste ogasun batzuek egiten duten bezala.
6. Lehen bilkura-aldian, Nafarroako Parlamentuan Batzorde Txostengile bat sortzea, LORAFNAren eguneratzea aztertzeko, indarrean dagoen esparru konstituzionalaren barnean, errealitate sozialera eta XXI. mendeko Nafarroako herritarren sentimenera egokitzearen indarrean berrogei urte egin eta gero, autogobernu handiagoan sakonduz, eta eskubide sozial eta demokratikoetan sakonduz.

GARDENTASUNA, ETIKA POLITIKOA ETA GOBERNANTZA BERRIA

1. Gobernu Irekiaren I. Plana (2021-2023) bukatzea, diagnostikoa eginez noraino bete den jakiteko.
2. Aurrekoa oinarri harturik, Gobernu Irekiaren 2024-2027 aldirako II. Plana onetsiko dugu, eta kalitaterik handieneko politika publikoak bultzatzeko erronkari eutsiko diogu, gure gizartearen egungo eta etorkizuneko beharrei erantzun eraginkorra, efizientea eta jasangarria emateko, ekitatearen printzipiotik abiatuz.

Politika horien diseinuan bermatuko da herritarren parte-hartzea eta gardentasuna, eta kontuak emateko joera argi bat.

3. Ustelkeriaren aurkako Bulegoak kargu publikodunen jokabide-kode etiko bat egingen du, eta Biktimaren Estatutu bat ere bai.
4. Berehala abiaraztea Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua eguneratzeko lana, Kontseiluaren eginkizunak berak gaur egun dituen beharretara egokitzearen, zereginei eta antolaketari dagokienez.
5. Nafarroako Gobernuaren barnean, XXI. mendeko errealitatera egokitutako politika publikoen ebaluazioa garatzea, eta epe ertain eta luzerako politika publiko estrategikoen plangintza garatzea.

SEGURTASUN PUBLIKOA ETA LARRIALDIEN KUDEAKETA

1. Foruzaingoaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoa ebaluatzea eta 2024-2027 aldirako Plan Estrategiko berria idaztea.
2. Nafarroako trafikoari eta bide-segurtasunari buruzko eskumen berria ezartzea eta egiazki hedatzea. Nafarroako Bide Segurtasuneko 2024-2027 aldirako I. Estrategia onestea.
3. Nafarroako Suhiltzaile Zerbitzuaren 2024-2027 aldirako Plan Zuzentzaile berriaren onespina eta garapena bultzatzea, 2024ko lehen hiruhilekoan, Nafarroako Suhiltzaile Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoa osoki ebaluatu ondoren.
4. Nafarroako larrialdi-zerbitzuetako azpiegiturak berritzeko plan bat onestea, eta Tafalla-Erdialdeko suhiltzaile-etxe berria eraikitzen bukatzea.
5. Aitzina joanen gara Nafarroako Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren proiektuan (Mutiloa). Epe ertainerako proiektu hori zenbait fasetan burutuko da, eta Barne departamentuko zenbait egoitza hartzea du helburu, hala nola Suhiltzaileen Parke Nagusia, 112-SOS Nafarroaren egoitza, trafikoa kudeatzeko zentro bat eta Foruzaingoaren Komisaria Nagusia.

BARNE DEPARTAMENTUA

1. Urtebeteko epean, Nafarroako Poliziei buruzko 2018ko Foru Legea osorik garatzea, beharrezkoak diren araugintzako eta erregelamenduzko tresnen bidez, eta polizia-antolamenduaren kalitate-kulturaren sakontzea.

JUSTIZIA

1. Berehala hastea Justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzko Legea osorik garatzen, gatazkak konpontzeko beste metodo batzuen alde egiteko gizarte-esparru guztietan.

16. KOORDINAZIORAKO, GARAPENERAKO ETA JARRAIPENERAKO MEKANISMOAK

Legegintzaldiko programa hau sinatzen duten erakunde politikoek konpromisoa hartzen dute Legebiltzarrean ekintza politiko instituzional bat garatzeko, hartara, bateragarriak izan daitezen bakoitzaren berezitasuna eta akordioa garatzeko parlamentuan beharko den ekintza koordinatua.

Erakunde politiko sinatzaileek, akordio hau babesten duten parlamentu-taldeen bidez, konpromisoa hartzen dute Foru Parlamentuan ordezkariak dituzten indar politiko guztien arteko elkarrizketa eta adostasuna bultzatzeko, solaskidetzarako behar diren bideak antolatuz horretarako. Adostasuneko formulen prozesu bat irekiko da beste indar politiko batzuekin, egonkortasun politikoa eta instituzionala ahalbidetzeko, behar diren prozedurak garatuz horretarako.

Funtzionamendurako akordio hau eta legegintzaldiko programa errespetatuz defendatuko dira alderdi politiko sinatzaile bakoitzaren printzipioak eta balioak.

Erakunde politiko sinatzaileen arteko harremanak leialtasuna, elkarrizketa, eta akordioak bilatzeko eta negoziatzeko ahalegina izan beharko ditu ezaugarri.

Erakundeen egonkortasuna lortzeko behar den koordinazioak ez du murriztuko erakunde politiko bakoitzak duen askatasuna bere jarrera politiko eta programatikoen arabera defendatzen dituen irizpideak azaltzeko eta ikusarazteko, betiere aipatu printzipioak errespetatzen badira.

4.1.- JARRAIPEN-ORGANOAK

Jarraipen-batzorde orokorra

Akordio honen jarraipen-batzordearen bidez koordinatuko da erakunde politiko sinatzaileen jardura parlamentarioa. Adostasunaren funtsezko printzipioak gidatuko du batzorde horren jardura.

Batzordeak kide hauek izanen ditu:

- Nafarroako Gobernuko lehendakaria, buru arituko baita.
- Alderdi sinatzaile bakoitzeko hiru lagun, gehienez ere; hiru horien artean, alderdiko parlamentuko bozeramaileak egon behar du.
- Kontseilariak, landuko diren gaien arabera erabakitzen diren horiek. Hitza izanen dute, baina botorik ez.

Batzordeak bi hilean behin eginen ditu ohiko bilerak; ohiz kanpokoak, sinatzaileetako batek eskatzen badu, 3 eguneko epean. Nolanahi ere, Legebiltzarreko bilkura-aldia hastearekin batera bilduko da, eta gobernuaren aldaketa programatiko edo estruktural garrantzitsuren bat dakarren edozein erabaki hartu aurretik.

Batzordearen helburuak honako hauek izanen dira: akordio hau noraino betetzen den aztertzea; akordioaren interpretazioari buruzko zalantzak argitzea; akordioa betetzeari buruz gobernuari eskatzen zaizkion azalpenak biltzea; gerora sortutako inguruabarrengatik egin beharreko egokitzapenak baloratzea; eta akordioa egin duten erakundeen arteko desadostasunak aztertzea eta konpontzea.

Jarraipen-batzordeak behar diren mekanismoak adostuko ditu indar sinatzaileen arteko koordinazioa bermatzeko Gobernuko departamentu guztietan, baita akordio hau sinatu ez duten indar parlamentarioekin egiten diren negoziazioetan ere.

Asteroko funtzionamendu-batzordea

Akordio hau sinatzen duten erakunde politikoen ordezkariak batzordean bilduko dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Bozeramaileen Batzarrak ezarritako bilerak egin aurretik.

Batzorde hori, gutxienez, organo hori osatzen duten hiru alderdi politikoetako ordezkariak osatuko dute, eta, hartan, organo horri aurkeztuko zaizkion gaiak eztabaidatuko dira eta behar diren jarrerak adostuko dira. Batzorde horretan Gobernuaren ordezkari batek parte hartzen ahalko du.

Parlamentuko taldeek Gobernuarekin adostuko dute zer jarrera izan gai hauei buruz: Parlamantuko lanen programazioa, bilkuren egutegia, osoko bilkuretako gai-zerrenda finkatzea, eztabaidak antolatzea, idazki zein dokumentuak kalifikatzeari buruz eta izapidetzeko onartzeari buruz Mahaiak hartutako erabakiak berraztertzea, eta Bozeramaileen Batzarrean landutako beste edozein gai.

Era berean, hiru alderdiek Mahaian eta Bozeramaileen Batzarrean adierazpen instituzional bateratuak aurkeztea hitzartuko da, baita, ahal den guztietan, jarrera bateratua izatea ere parlamentuko beste talde batzuek aurkeztutako adierazpen instituzionalen aurrean.

Bilera horietan, halaber, asteko egutegian ezarritako parlamentu-batzordeen edukia jorratuko dute hiru alderdiek, baita haietan landuko diren gaiak buruzko jarrerak ere, akordioarekin zerikusia duten gaiak badira edo, harekin zerikusia izan ez arren gaia amankomunean lantzen ahal dela adostuz gero.

Parlamentuko Lehendakaritzak Mahaiari proposamenak egiten dizkionean, batzorde honetan aztertuko dira, edukia partekatzeko. Era berean, erakunde eta entitateekin hartu edo sinatuko diren konpromisoak jakinaraziko dira.

Batzorde sektorialak

Nafarroako Gobernu berria abian jarririk, egituran zenbat departamentu eratu, beste horrenbeste batzorde sektorial eratu dira. Batzorde sektorialak honela osatuko dira: arloko kontseilaria eta akordio hau sinatu duten parlamentu-taldeek bozeramaileak, gaian eskumena duen parlamentu-batzordearen arabera.

Batzorde sektorialeiei dagokie parlamentu-batzordeetan landuko diren gaiak jorratzea, Parlamentuaren egutegiaren arabera, baita Gobernuak arlo horretan dituen proiektu, plan, programa, ekimen eta ekintzen jarraipena egitea ere.

Bilerak dagokien departamentuan egingen dira eta kontseilarien kabineteen arduradunei dagokie bilera horiek antolatzea eta haietarako deia egitea. Batzorde sektorialek bere erabakiko dute zenbatean behin bilduko diren eta, oro har, zer funtzionamendu-dinamika izanen duten.

Hiru taldeetako bozeramaile sektorialek zalantzak planteatzen ahalko dituzte arlo horretan, haiek edo parlamentuko beste talde batzuek behar den departamentuari eskaturiko informazioei buruz.

Taldeek gaiak aurkezten ahalko dituzte jarraipen-batzorde orokorraren hurrengo bileran landu daitezzen, baldin eta, batzordearen xedearen arabera, gai horiei buruzko lanketa politikoa batzordean egin beharra badago.

Akordio hau sinatu duten parlamentu-taldeetako edozeinek izanen du aukera Sektoreko jarraipen-batzordea eskatzeko. Jarraipen-batzorde horretarako deia behar den departamentuak egin behar du, gaiaren presaren arabera, astebeteko epean.

4.2.- PARLAMENTUKO KOORDINAZIORAKO ARAUAK

Lege-proiektuak.

Gobernuak bilkura-aldi bakoitzaren hasieran jakinaraziko du zer legegintza-egutegi aurreikusten den aldi horretarako.

Gobernuak legegintza-egutegia osatzen duten lege-aurreproiektuen berri emanen die akordio hau sinatzen duten parlamentu-taldee, Gobernu-kontseilura onesteko eraman baino astebete lehenago gutxienez. Testua parlamentuko talde sinatzaileekin adostu beharko da Gobernu-kontseiluan landu aurretik.

Gobernuak eta parlamentuko talde sinatzaileen ordezkariak elkarrekin aztertuko dituzte Gobernuaren lege-proiektuei buruzko zuzenketa eta boto partikularren aurkezpena, transakzioa edo haiek kentzea, baita parlamentuko gainerako taldeek aurkezten dituztenak onartzeko eta baztertzeko arrazoiak ere. Behar bezalako mekanismoak ezarriko dira informaziorako eta harremanetarako, kasuan-kasuan dagokion batzorde sektorialaren bidez.

Akordio hau sinatzen duten parlamentu-taldeek aldeztuko dituzte zer zuzenketa aurkeztu eta zer jarrera izanen duten Gobernuaren lege-proiektuei buruz.

Gobernuak trabarik gabeko elkarrizketan jardunen du parlamentuko talde guztiekin, bere ekintzan txertatzeko, ahal den heinean, haien planteamendu eta proposamenak, betiere akordioan ezarritakoarekin bat badatoz.

Parlamentuari jakinarazi beharreko planak eta programak

Gobernuak akordio hau sinatu duten parlamentu-taldeei aldez aurretik bidaliko dizkie legebiltzarrari osoko bilkuran edo batzordean aztertzeko jakinarazi behar zaizkion planak eta programak, eta, beharrezkoa denean, batzorde sektorial egokia eratuko da, haien gaineko azalpenak emateko. Testua parlamentuko talde sinatzaileekin adostu beharko da aurkeztu aurretik.

Parlamentuko taldeen lege-proposamenak

Saihestu egingen dira gobernuak aurreikusitako legegintza-ekimenen xede bera duten lege-proposamenak.

Gainerako kasuetan, legegintza-ekimen bat aurkeztu nahi duen alderdi politikoak behar den batzorde sektorialari helarazi beharko dio, eta, behar izanez gero, jarraipen-batzorde orokorrari ere bai, eta aldez aurretik adostasuna lortu beharko da batera aurkezteko. Adostasunik ez badago, proposamena egin duen taldeak bakarka aurkezten ahalko du.

Parlamentuko beste talde batzuen lege-proposamenak aintzat hartzean, irizpide ezberdina erabiliko da akordioan jasotako gaiak diren ala ez kontuan hartuta. Akordioan jasotako gaietan baizik ez du Gobernu-kontseiluak ezarriko zer irizpide jarraitu beharra dagoen, eta, nolana ere, parlamentuko talde sinatzaileen ordezkariekin eztabaidatu beharko da aldez aurretik.

Gobernua kontrolatzeko ekimenak

Erakunde politiko sinatzaileek askatasuna izanen dute Gobernu kontrolatzeko ekimenak gauzatzeko, parlamentuko beren taldeen bidez, ahozko eta idatzizko galderen bidez; informazioa eskatuz; Gobernuko kideei agerraldia eskatuz eta interpelazioak eginez.

Kontrol-ekimenak informazioa eskatzera eta azalpenak eskatzera bideratuko dira, bai akordioa betetzeari dagokionez, bai akordiotik kanpoko gaiei dagokienez.

Erakunde politiko sinatzaileetako batek aurkezturiko ekimenen bat desegokitzen jotzen badu, asteroko funtzionamendu-batzordeak horren arrazoiez eztabaidatzen ahalko du eta, behar izanez gero, ekimena kentzeko aukera aztertzen ahalko da.

Gobernua parlamentuan agertzen ahalko da bere eskumeneko gaiez aritzeko, eta, agerraldia egin aurretik, horretarako behar den informazioa eta dokumentazioa helarazi beharko die erakunde politiko sinatzaileei.

Lan-saioak eta parlamentuko bisitak

Erakunde politiko sinatzaileek jarduteko askatasuna izanen dute kolektibo, elkarte eta erakundeekin lan-saioak eskatze aldera, baita parlamentuko bisitak eskatzeko ere. Halako ekimenek gobernu-programako gaiekin zerikusia dutenean, ahaleginak egiten dira batera erregistratu daitezen.

Adierazpen instituzionalak eta mozioak

Hiru alderdi politiko sinatzaileak adierazpen instituzional bateratuen edukia adosten saiatuko dira, Mahaiak eta Bozeramaileen Batzarrak onar ditzaten. Baterako adierazpenak erregistroa itxi baino lehen adostu beharko dira (osteguna baino lehen), eta alderdi guztien iritzia trukatuko dira, jarrera bateratu bat finkatzen saiatzearren.

Ez dira izapidetzeko onartuko Mahaian eta Bozeramaileen Batzarrean tratatu daitezen beste alderdi politiko batzuegandik datozen adierazpenak, ez badira erregistroa itxi eta bilkura egin bitartean gertaturiko gaiei buruzkoak (hots, benetan presakoak).

Asteroko funtzionamendu-batzordean adostu beharko da zer jarrerak agertuko diren gainerako alderdi politikoen adierazpenei buruz, baita finkatu ere zer jarrera hartuko den Mahaian eta ondorengo Bozeramaileen Batzarrean. Batzordean jarrera bateraturik lortu ezin bada, alderdi politiko bakoitzaren arrazoiak zein diren azalduko da eta arrazoi horien berri emanen da jarrera ezberdinak justifikatzeko.

Bozeramaileen Batzarrak jarrera bat adostu eta gero, alderdi politiko sinatzaileetako batek ez badio jarrera horri segitzen, jarraipen-batzorde orokorrean aztertuko da auzia.

Erakunde politiko sinatzaileek ahalegina egingen dute Osoko Bilkuran eta Batzordean izapidetzeko mozioak batera lantzeko. Bakarka aurkeztuz gero, haien berri emanen zaie parlamentuko gainerako talde sinatzaileei, guztien aldeko botoa lortze aldera.

Izendapenak

Parlamentuko talde sinatzaileak, ahal dela, elkarrekin adosten saiatuko dira zer hautagai proposatuko diren parlamentuak izendatu beharreko karguetarako.

Aurrekontua

Berriazko prozedura bat ezarriko da Gobernuaren eta akordio hau sinatu duten parlamentu-taldeen artean, Nafarroako Aurrekontu Orokorren lanketa adosteko, baita parlamentuko tramitazioan agertu beharreko jarrerak adosteko ere.

4.- 2023-2027 LEGEGINTZALDIRAKO AKORDIO HONETAKO KOORDINAZIO-MEKANISMOAK BETETZEKO BERMEAK

Garrantzitsua da koordinazio-mekanismoek behar bezala funtziona dezaten 2023-2027 Legegintzaldiko Akordio hau sinatu duten hiru indarren arteko Koalizio Gobernu bat arrakastaz burutzeko, eta, horrenbestez, mekanismo horiek betetzen ez direnean, hiru alderdiek jarraipen-batzorde orokorrean landuko dute auzia, egoki diren neurriak har daitezten.

5.- AZKEN KONPROMISOA

Akordio hau sinatzaileen adostasunez garatuko da, eta oinarritzat hartuko da Gobernuaren Lehendakariaren inbestidura-hitzaldia antolatzeko, gobernu-ekintza bera gauzatzeko eta legegintzako eta araugintzako lana bultzatzeko 2023-2027 legegintzaldian zehar.

Akordio honek berekin dakar sinatzaileek konpromisoa hartzea PSN-PSOEn hautagai María Chivite Navascués babesteko Nafarroako Gobernuko lehendakari izateko inbestiduran.

17. DESADOSTASUNAK

HEZKUNTZA

LAN BALDINTZAK

1. Ikastetxe itunduekin hitzarmenak eguneratzeko hiruko mahai bat eratzeko proposamena. Geroa Bairen proposamena izan da eta ez da jaso.

Ratioak

2. Ratioei dagokienez, hauek dira PSN-PSOEn eta Geroa Bairen jarrerak:
 - Ratioak murriztea, honako hauei begira beti: ekitatea, autonomia eta hezkuntza-plangintza, kalitatea, gobernantza-eredua eta ikastetxeen autonomia. Afera ez dadila besterik gabe izan zenbat ikasle dauden talde bakoitzean, baizik eta hezkuntzaren berrikuntza eta aldaketa indartzea, ekitatea hobetzea eta irakasleen profesionaltasuna eta ikastetxeen autonomia gara dadin sustatzea". Ingurune kalteberetan ratioak jaitsiz. PSN-PSOEn proposamena izan da eta ez da jaso.
 - Ratioak jaisteak eskola publikoan, modu linealean, etapa guztietan eta maila guztietan. Geroa Bairen proposamena izan da eta ez da jaso.
3. Unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira neurriak ezartzen dituen 11/2022 Lege Organikoa ezartzen jarraitzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari plantillan irakasle-lanpostuak sortzen jarraitzeko eta atzerriko hizkuntzen maila jakin bat jakitea egiaztatu beharra eskatzeko, atzerriko hizkuntzak ikasteko programak ematen diren ikastetxeetan eginkizunak betetzeko. Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza-plan bat garatzea atzerriko hizkuntzan ematen diren irakasgaietarako, baita berriazko didaktikarako ere. PSN-PSOEn proposamena izan da eta ez da jaso.
4. Hizkuntzen tratamendu integratua eraginkortasunez arautuko duen arau bat egitea. GEROA BAIren proposamena izan da eta ez da jaso.
5. API Legea indargabetzea. GEROA BAIren proposamena izan da eta ez da jaso.

6. Behar den araudia egituratzea hezkuntza-laguntzako teknikari adituak Hezkuntzan sartzeko, kolektibo horren eskaerei erantzuteko. GEROA BAIren proposamena izan da eta ez da jaso.

ETXEBIZITZA

7. Behar diren aldaketak bultzatzea alokairu sozialeko etxebizitzaren sustapenetan BEZ supermurriztua aplikatzeko. GEROA BAIren proposamena izan da eta ez da jaso.
8. EMANZIPA programa aldatzea, onuradunen adin-tartea 21etik 35era urtera arte zabalduz, eta alokairuaren prezioaren egungo gehieneko zenbatekoa –675 e/m²/hilabete– 725 e/m²-ra arte igoz, oro har, laguntza alokairuaren kostuaren % 50era iristeko egiazki. GEROA BAIren proposamena izan da eta ez da jaso.

OGASUNA, BALIABIDE PUBLIKOAK ETA FISKALITATEA

9. Nafarroako banku publiko bat sortzea. CONTIGO ZUREKINen proposamena izan da eta ez da akordioan jaso.
10. Kudeaketa publikoko esperientzia berri bat abiaraztea enplegu-zentro berezi batean eta zentro horri lotutako laneratze-enpresa batean. CONTIGO ZUREKINen proposamena izan da eta ez da akordioan jaso.

HIZKUNTZA POLITIKA

11. Hizkuntza-zonifikazioari dela eta.
 - Uste da beharrezkoa eta premiazkoa dela LORAFNAREN aldaketan aurrera egitea, hizkuntza-zonifikazioa desagerrarazteko. Geroa Baik proposaturiko jarrera da.
 - Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen indarraldia eta garapena defendatzea. Lege hori dago gaur egun indarrean, eta frogatu du balio duela lurraldearen eskariarekin eta errealitate soziolinguistikoarekin bat datorren tratamendua bermatzeko, egungo gizarte-eskaerari lagun eginez eta herritarrek euskara erabil eta ezagutu dezaten babestuz, borondatezkotasunaren eta aukera-berdintasunaren premisei jarraikiz. PSN-PSOEk proposaturiko jarrera da.
12. Euskararen II. Plan Estrategikoa onestea, Nafarroako Euskararen Kontseiluak 2021eko abenduaren 21ean onartutako baldintzetan.

GEROA BAIn proposamena izan da eta ez da jaso.

FUNTZIO PUBLIKOA, JUSTIZIA ETA BARNEKOA

13. Nafarroako ikus-entzunezko agregatzailea dela-eta:

- Urtebeteko epean, Nafarroako ikus-entzunezko edukien agregatzaile bat bultzatu eta garatzea, Nafarroako Ikus-entzunezko plataforma gisa. GEROA BAIn proposamena izan da eta ez da jaso.
- Hurbileko ikus-entzunezko edukien agregatzailea abian jartzea. CONTIGO ZUREKINen proposamena izan da eta ez da akordioan jaso.

14. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzeko jada landu den Foru Dekretua onestea.

Euskara Nafarroa osoan baloratu beharra dago, salbuespenik gabe. GEROA BAIn proposamena izan da eta ez da jaso.

LURRALDE-KOHESIOA ETA TOKI-ADMINISTRAZIOA

15. Konpromisoa hartzea 2/2010 Foru Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta hala eskatzen duten udalei Parlamentuan ahalbidetuko zaiela eremu euskaldunetara edo mistoetara aldatzea, udal-autonomia errespetatzen dela erakusteko. GEROA BAIn proposamena izan da eta ez da jaso.

16. Itsaso-Castejón-Muru Artederretako 400 linea berria egitea. PSN-PSOEren proposamena izan da eta ez da jaso.

NAFARROA, BERE AUTOGOBERNUA ETA LANKIDETZA INSTITUZIONALA

SEGURTASUN PUBLIKOA ETA LARRIALDIEN KUDEAKETA

17. Honako hau dioen puntua dela-eta: "2020-2023 aldirako Foruzaingoaren Plan Estrategikoa ebaluatzea eta 2024-2027 aldirako Plan Estrategiko berria idaztea".

- PSN-PSOEek honela idaztea proposatu du eta desadostasun modura finkatu da: "2019-2023 legegintzaldian jarraitzen ari den ibilbide-orria da, Foruzaingoa izan dadin Nafarroako erreferentziazko polizia-kidegoa, Foru Komunitatean dauden gainerako polizia-indarrekin koordinazio erabatekotik abiatuz".

- Geroa Baik testu hau proposatu du eta desadostasun modura ageri da: Polizia-eredua: Foruzaingo integral bat, Foru Hobekuntzan aitortutako gaietan erabateko eskumenak dituena, hala nola trafikoa, herritarren segurtasuna, ingurumena –eremu horretan, zehazki, naturaren babesa era eksklusiboan bereganatzea–, ikuskizun publikoak, kirol-lehiaketak (SADAR) eta ordena publikoko jarduera sailkatuak. Geroa Baik proposaturiko jarrera da.
18. Negoziazioak garatzea Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak ingurumenaren arloan Nafarroari aitortutako eskumena Foruzaingoak modu eksklusiboan gauza dezan, polizia integral gisa. GEROA-BAIren proposamena izan da eta ez da jaso.

JUSTIZIA

19. Honela dioen puntuan: Berehala hastea Justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzko Legea osorik garatzen, gatazkak konpontzeko beste metodo batzuen alde egiteko gizarte-esparru guztietan.
- "Martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legearen barnean justizia errestauratiboa sartzea bitartekaritza eta praktika errestauratibo komunitario gisa lan-esparruan, bai bitartekaritzan, bai edozein praktika errestauratibotan". GEROA BAIren proposamena izan da eta ez da jaso.

Eta horrela jasota geldu dadin, agiri hau sinatzen da Iruñean, 2023ko abuztuaren 8an.

MARÍA CHIVITE
NAVASCUÉS PSN-
PSOE

UXUE BARKOS
BERRUEZO
GEROA BAI

BEGOÑA ALFARO
GARCÍA CONTIGO-
ZUREKIN